ASTELEHENEKO
# Goienkaria

2007ko apirilaren 28a > Astelehena > VI. urtea > 187. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Ez naiz erretiratuko; bokazioak ez du adinik eta artista lan egiten hiltzen da"



**Nestor Basterretxea** > 6

**G2a** Trikitilarien eta dantzarien ospakizunak > 23

**OÑATI** Arrasate-Oñati lasterketaren 26. ekitaldia, maiatzaren 10ean > 12

**SASKIBALOIA** Iruñan irabazita, igoera garaipen bakar batera du MUk > 19

**KULTURA** 'Hor al zaude?' antzezlana ekarri zuten Aramaiora > 24

**SOMALIA** > BAHIKETA

# Mikel Arana arrasatearra eta beste 25 arrantzaleak, aske

**ASKATUTA** Zapatu arratsaldean askatu zituzten 'Playa de Bakio' atunketariko itsas gizonak, sei eguneko bahiketaren ostean

**MIKEL ARANA** Arrasateko gaztea ondo dago, eta zapatuan bertan eta atzo senideekin hitz egin zuen telefonoz

**SEYCHELLES** Ontzia Seychelleetara bidean dago eta baliteke eguenean Mikel Arana Arrasaten izatea > 10



Mikel Arana. GOIENKARIA

## Frontean hildako gudariak eta zibilak omendu dituzte Elgetan

Espainiako gerrako frontekoen omenez, bi lore eskaintza eta mendi txangoa egin zuten atzo Elgetan. Ibilaldian, Elgetako frontearen posizio garrantzitsuenak ezagutu zituzten eta Luis Gutierrez historialariak gertaeren inguruko azalpenak eman zizkien ibiltariei. *Intxortako Atea* deitzen den monumentuan eta Salbador ermitan lore eskaintzak egin zituzten. Elgetako Udalak eta 1937 Intxorta kultur elkarteak elkarrekin antolatu zuten ekitaldia eta gehiago ere egingo dituzte. > 15




**IBILALDIA** Mendi txangoa plazatik abiatu zuten eta handik Asentziorako bidea hartu zuten ibiltariek atzo. JOSETXO ARANTZABAL

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-05
**Elkarrizketa** > 06
**Iritzia** > 07-08
**Herriak** > 09-14
**Kirola** > 15-20
**Kultura** > 21-27
**Sailkatuak** > 28
**Irrati-Telebista eta Hitzordua** > 29
**Berri-zakua** > 30-31
**Azkena** > 32

**BAKETIK** > HITZARMENA

## Parte hartzea bultzatuz

Diputazioak eta Baketik Bake Zentroak hitzarmena sinatu zuten egubakoitzean Donostian. Gizartearen parte hartzea bultzatzeko hitzarmena da. Besteak beste, hamabi ikastaro egingo dituzte Gipuzkoa osoan, horietako bat Arrasaten, > 04

**ARRASATE** > GALPARSORO, GARZONEN AURREAN

## Arrasateko alkatea deitu dute Auzitegi Nazionalera

Ino Galparsoro Arrasateko alkateak Garzon epailearen aurrean deklaratu beharko du etzi, eguaztena. "Agintari judizialari desobedientzia" egin diola eta horregatik, Auzitegi Nazionalera joan behar dela dio zitazioak. Eguaztenean, 10:00etan, Garzonen aurrean deklaratzera deitu dute Arrasateko alkatea, inputatu gisa.

Bestalde, gaur, astelehena, osoko bilkura egingo dute Bergarako udaletxean. Bertara hiru mozio eramango dituzte: PSE-EE eta EAJ alderdiek elkarrekin aurkeztuko dutena eta EAEren eta Aralarren mozio alternatiboak hain zuzen. > 05

**FUTBOLA** > DERBIA

## Antzuolak Bergarari irabazi (0-1)

Lehen erregional mailako derbian, Antzuolak 0-1 irabazi zion zapatuan Bergarari, Agorrosinen. Liga amaitzeko bi jardunaldiren faltan, Bergarak ia-ia agur esan dio igoera promozioa jokatzeko aukerari. Antzuolak bi partiduak irabazi dizkio aurten. > 17




**SEGURTASUNA** Igerilekutarako Jaurlaritzako Osasun saiaren araudi berezia dago indarrean. Irudian, Agorrosingo langile bat kloro ihesak kontrolatzeko beharrezko ekipoa frogatzen. JOSETXO ARANTZABAL

**AISIALDIA** > LARRIALDI PROTOKOLOAK KIROL EREMUETAN

# Arriskuen gainetik kirola lasai egin daiteke ibarreko eremuetako neurriei esker

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > DEBAGOIENA

Edozein tokitan suhiltzaileen kamioia edo anbulantzia ikustea istripu edo larrialdia izan den seinalea da. Hala izan zen orain dela gutxi Bergarako Agorrosin kirol gunean ere. Igerilekuko erabiltzaile batek tentsio arazoak izan zituela-eta anbulantzia joan zen bertara. Txikia, baina larrialdia azken batean.

Agorrosin moduko kirol guneetara joaten garenean ez dugu zalantzan ipintzen larrialdi egoeretarako ondo gertatuta daudenik. Gainera, erabiltzaileek apenas erreparatzen diote horri. Baina legeari jarraituz, kirol eremuetako arduradunek zein Udaletako teknikariek neurriak hartu behar dituzte aurrez. Kirol instalazioak jendetza biltzen den tokiak izanik, eta horietan kirol ikuskizunak egiten direla kontuan hartuta Ikuskizun publiko eta jolas jardueren legea bete behar dute kirol eremuek. Gurean, oinarrizko legea kirol eremu gehienek betetzen dute, baina herri bakoitzean berezitasunak daude.

**TXIKIETAN OINARRIZKO ARAUAK**

Ibarrean, herririk handienetan daude kirol instalazio gehien eta handienak, eta txikiekin alderatuta zorrotzago lantzen dute larrialdi protokoloen gaia.

Eskoriatzan oinarrizko legea egon badago, baina ez dute aparteko protokolorik. Antzuolan, kirol azpiegiturak urriak izanik, gai hori orain artean askorik ez dela landu esan digu Udaleko Juanlu Aranburuk, baina "azpiegitura berriak sortu ahala landu beharko dugu".

Elgetako Udaleko kirol teknikari Oscar Carrascalek ere esan digu, larrialdien gaia ez daukatela sakonki landuta, eta hausnarketaren beharra dagoela. "Zehaztuta dugu nola jokatu edozein larrialdiren aurrean, eta orain arteko larrialdietarako nahikoa izan da; baina horrek ez du esan nahi aurrerantzean ere nahikoa izango denik". Carrascalen ustez, larrialdi kasu askok zerikusia dute instalazioen egoerarekin. "Elgetan, esaterako, orain dela bi urte berritze lanak egin ziren frontoian arriskuak saihesteko, baina gainontzean eraikinaren egoera petrala da". Elgetako kirol eremuetan eragin fisikoa izan duen larrialdi kasurik ez da izan teknikariak azaldu digunez, "baina instalazioetako gabezien eraginez, euria eta elurrarengatik, urez bete izan da alderdiren bat eta hori ere larrialdia da".

**OÑATIN EURIA ARRISKU BAKARRA**

Oñatiko kiroldegia iaz berritu zuten eta larrialdi eta babes planik ez da falta. Beste kirol instalazio publikoek, itxiak ez direnez, ez daukate protokolo beharrik.

Txostenean agertzen da eraikina nolakoa den, ordutegia, kokapena, instalazio elektrikoa, aire girotuaa, berogailua…; eta zein diren kiroldegian sor daitezkeen larrialdi egoerak. Maiz gezurra dirudien arren, asko dira kiroldegi batean arrisku eragileak. Izan daitezke, naturalak, euri jasen ondorioz sortutako uholdeak, esaterako; teknologikoak; edo sozialak, jarrera antisozialek eragindakoak. Hor sartuko lirateke bonba mehatxuak, sabotajeak edo bidegabe sartzeak.

Oñatiko kiroldegiko Gerardo Eskartzak esan digu protokoloa izan arren, "arriskuei nola aurre egin jakiteko urtean behin gutxienez komeni da simulazioa egitea. Guk oraindik ez dugu egin aurten". Bestalde, baliabideak ere kontuan hartu behar direla dio: "Materialen artean su itzalgailuak eta ur ahoak leudeke. Inspekzioa egiteko horiek modu egokian egotea beharrezkoa da. Bestalde, langile bakoitzak jakin behar du larrialdietan zer egin. Esaterako, sute baten kasuan nork deitu beharko liekeen suhiltzaileei, nola abisatu erabiltzaileei, nor arduratu behar den barruan inor geratu ez dela ziurtatzeaz… Horretarako, aldian behin errepasatu egin behar dira".

Aparteko arrisku egoerarik ez da izan Oñatiko instalazioetan. "Euria gogor egin duenetan sabaitik sartu da ura. Orduan, protokoloaren neurri batzuk bete behar izan ditugu: jendea atera eta gune horiek erabiltzen ez utzi, gure arteko antolaketa koordinatu garbiketa eta konponketa lanetarako… Horrelakoetan

**"Orain arte nahikoa izan da protokoloa baina horrek ez du esan nahi aurrerantzean ere hala izango denik"**

**"Arriskuei nola aurre egin jakiteko urtean behin gutxienez komeni da simulazioa egitea"**

jendeak ez du oztoporik ipintzen. Oso bistakoa da kantxan sekulako putzua dagoela eta ezin dutela erabili", dio Eskartzak. Larrialdiak larrialdi ezer gertatu arte erabiltzaile arruntak ez die neurriei erreparatzen. "Guk, langileok, begiratzen dugu, esaterako, harmailetako eserlekuak suaren aurkako babesa izatea, izan ere, arauek hala eskatzen digute".

**AGORROSINEN BALIABIDE GEHIAGO**

Berria da oso Bergarako Agorrosin kirol gunea eta Labegaraietako kiroldegiarekin eta Udal Pilotalekuarekin batera larrialdi kasuetarako bete beharreko neurriak hartzen dituzte. "Ikusle kopuru eta edukierarekin zerikusia dute araudiek eta batik bat arduratzen dira publikoarekin. Kirol praktikari buruz ez dute ezer jasotzen, eta instalazioa kudeatzen duenari dagokio neurriak hartzea. Esaterako, Agorrosinen desfibriladore automatikoa ipini dugu", azaldu digu Unai Asurmendi kirol teknikariak.

Plan orokorraren baitan daude suteena eta ebakuazioa. "Bermatu behar da su itzalgailuen azterketa egina dagoela, irteera ibilbideak markatuta, argia joanez gero argiztapen alternatiboa duela... Guk hornidura bikoitza dugu hiru eraikinetan eta Agorrosinen alternatiboak huts egingo balu argindar sorgailu propioa dugu lau edo bost ordurako".

Larrialdietarako Bergarako instalazioetan nahikoa neurri dauden galdetuta Asurmendik esan digu eurendako nahikoa direla. "Arautakoez gain, guk ipini ditugu larrialdiei aurre egiteko baliabideak, batez ere Agorrosinen, jende gehien han ibiltzen delako. Esaterako, sarrerako tornuek jende kopurua kontrolatzen dute eta gehienezko kopurua gainditz gero tornua blokeatzen da. Bainuetxean 75 lagun sar daitezke gehienez eta beste gunean ia 300", dio Asurmendik.

Bestalde, azaldu digu igerilekurako osasun sailaren araudi berezia dagoela. "Behartzen gaituzte gutxieneko ekipoa izatera: arnasketarako oxigeno bonbona, gomak eta maskara, eskuohe berezia, elementu flotagailuak jendea ateratzeko eta soroslea igerilekua irekita dagoenean".

Larrialdi protokoloak gutxitan erabili dituztela esan digu Bergarako teknikariak: "Tentsio jaitsiera edo zorabioak izan dira eta kloro ihesa ere izan zen behin. Horrelakoetan erabiltzaileen artean histeria sortzen da, baina neurriak egoki hartu eta konpontzen da berehala".

**TXIKIETAN OINARRIZKO ARAUAK**

Arrasateko Udaleko prebentzio teknikari Juan Carlos Marcosek azaldu digu larrialdi protokolo guztiek dutela eskema orokorra, baina instalazio bakoitzaren tamainara, edukierara, sarreretara, kokapenera, langile eta erabiltzaile kopurura, jardueretara... egokitzen direla. "ez da gauza bera eguneroko jarduera edo ezohiko ikuskizunak egotea. Kasu bakoitzerako protokolo eta langile kopuruak ere ez dira berdinak".

Kirol eremuetan larrialdi kasu asko gerta daitezke: "Suteak, eztandak, gas ihesak, bonba abisuak, istripu larriak, argindar falta... Esaterako, igerilekuan gerta daitezke istripuak baita kirol ikuskizunetan ere, eta horietan istiluak ere", dio Marcosek.

Protokoloak benetako egoeretara moldatu beharra ere aipatu du: "Horretarako egiten dira simulazioak eta guk protokolo guztiak berraztertu behar ditugu". Simulazioek erakusten dute besteak beste larrialdiei aurre egiteko nahikoa baliabide dagoen. "Langileek prestakuntza dute euren eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko; sorosleak ere baditugu; eta suteei aurre egiteko eta ebakuaziorako medioak ditugu: detektagailuak, itzalgailuak, mangerak, seinaleak, bozgorailuak...)", azaldu digu Marcosek.

Marcosek esan digu Arrasaten ere inoiz erabili behar izan dituzte larrialdi protokoloak: "Kloro eskape bat egon zen orain dela urte eta erdi inguru, eta langileek oso ondo erantzun zuten, baita erabiltzaileek ere. Baina kasua aztertuta, konturatu ginen hainbat akats zeudela eta honek balio zigun ikasteko".

Azken urteotan, instalazioetan, batez ere Musakolan, izandako aldaketak direla-eta plan berria egin dute eta orain lehengoarekin uztartu behar dute plan berri batean. "Gainera, langile berriak sartu dira eta oraindik kasu guztietan ez da egin beharrezko formazioa". dio Marcosek.

Aurrerantzean kirol guneetan adi ibiliko dira denak ahal dela larrialdi egoerarik ez sortzeko eta sortuz gero aurre egiteko.

> "Arautukoez gain, ipini ditugu larrialdietarako; baliabideak, adibidez, desfibriladorea"

> "Ez dira berdinak langile kopurua eta protokoloak kirol ikuskizunetan edo ohiko jardueretan"

EBAKUAZIO ARAUAK



Lagun asko elkartzen den eraikinetan erraza da arazoren bat edo istripuren bat gertatzea. Horrelakoetan, oso garbi izan behar da zer egin eta eraikinetik nola atera istripu larriagoak ekiditeko. Eraikin bat egoki mantentzeko, komenigarria da Jaurlaritzak emandako gomendioak jarraitzea:

1- Eremu guztiak txukun eta garbi mantendu.

2- Baimendutako zonaldeetan bakarrik erre.

3- Entxufeak ez gehiegi kargatu.

4- Ekipo elektriko eta elektronikoak erabili behar ez direnean itzali.

Ezbeharrak gertatzen direnerako hona hemen zenbait aholku:

- Gauden eremuko arduradunaren adierazpenak jarraitu eta lasai egon.
- Larrialdietan alarma jo eta beldur handiko egoerak kontrolatzen saiatu.
- Ez erabili ez igogailurik ezta karga-jasogailurik ere.
- Pasilloetan eta eskaileretan hormaren ondoan joan, erdialdea libre utziz.
- Ez inor bultzatu, eta ez pilaketarik sortu.
- Behar duten pertsonei lagundu (ezinduak, itsuak...).
- Ez gelditu eta ez atzera itzuli, arrazoia edozein dela ere.
- Kea baldin badago, urrundu, atea itxi eta oihal bustiak ipini zirrikituetan; norbere burua zapi edo oihal busti batekin babestu; eta lau hankatan ibili.
- Jantziek su hartzen badute, etzan, lurrean bueltak eman edo manta batez estali.
- Ate bat ukitzean beroa nabaritzen bada, ez ireki, eta urarekin hoztu.
- Suak harrapatuz gero, itxi ateak eta zirrikituetan oihal bustiak jarri. Leiho, balkoi, terraza eta antzekoetatik nabarmendu.
- Adostutako bilgunera jo.

## Aretxabaletako kiroldegi berrian garrantzi handia emango diete larrialdi neurriei

Kiroldegi guztietan bezala, Aretxabaletakoan ere badaude sorosle zerbitzua, botikina, esku-oheak... Baina Asier Muxika teknikariak esan digunez, ez dute aparteko protokolorik jarraitzen. Emergentzia kasuak zein diren eta horrelakoetan zer egin azaltzen duen txosten bat badute, 1994an egindakoa, baina inoiz ez dute erabili beharrik izan. "Azken 20 urteotan apenas izan dugu larrialdirik. Irristaketaren baten ondorioz erori eta anbulantziari deituta norbait eraman dugu ospitalera kolperen batekin, baina gainontzean ezer larririk ez da gertatu", dio Muxikak.

Dokumentuak egin beharrekoak jasotzen baditu ere, Muxikaren esanetan: "Ez daukagu prestaketa berezirik larrialdi bati aurre egiteko, ez dauzkagu barneratuta hartu beharreko neurriak. Baina zortez ez zaigu tokatu behar izatea, hala balitz, ongi jakingo genituzke bete beharreko pauso guztiak".

Argi dauka Asier Muxikak arlo horri dagokionez gabezia dezente dagoela Aretxabaletako kiroldegian, "are gehiago Bergarakoa moduko instalazio berriekin alderatuz gero, horietan segurtasun kontuek garrantzia handiagoa dute".

Baina horrek ez du askorik kezkatzen, izan ere, proiektu sendoak dituzte kirol instalazioei dagokienez: Aretxabaletako kiroldegia hiru hilabete barru ixteko eta botatzeko asmoa dute, berria eraikitzeko, noski. "Hortaz, larrialdi protokolo eta segurtasun gaiek zeresan handia izango dute kiroldegi berria egiterakoan. Gaur egungo egoeran, ordea, ez dago gure lehentasunen artean. Jendeak, kiroldegiko erabiltzaileek ere, ez dut uste askorik erreparatzen diotenik kontu horri. Inork ez du galdetzen kiroldegia larrialdietarako gertatuta dagoen ala ez, aurrez hala egongo dela uste dugu-eta", azaldu digu Asier Muxikak.




Kiroldegia hemendik hiru hilabetera ixteko eta eraisteko asmoa dute. JOSETXO ARANZABAL

**EKONOMIA** > MONDRAGON

# Kidek hitzarmena sinatu du Indian hotz kameren planta berria eraikitzeko

Indiako Roots Cooling enpresarekin egingo du lantegia Berriatuako kooperatibak

Ziurrenik Maharastra estatuan egingo dute; baina, udara arte ez da erabaki hori hartuko



**AURRE-HITZARMENA** Azaroan aurre-hitzarmena sinatu zuten Indian. GOIENKARIA

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Mondragoneko partaide den Kide kooperatibak hitzarmena izenpetu du Indiako Roots Cooling enpresarekin, RCS KIDE Pvt. Ltd. Enpresa sortzeko. Hotz kamerak ekoiztuko dituzteplanta berri horretan.

Aurretik, joan zen urteko azaroan, aurre-akordio bat sinatu zuten, Mondragonek Indian daukan ordezkaritzaren bitartez, eta azken hilabeteetan hitzarmenaren eta enpresa berriaren negozio planaren xehetasunak zehaztu dituzte. Hitzarmena New Delhin sinatu dute.

**HIRU MILIOI EURO**

Ekoizpen planta berriak, ziurrenik, Indiako Maharastra estatuan eraikiko dute. Behin betiko kokapena, hala ere, ez da udara arte finkatuko. Hasierako inbertsioa hiru milioi eurokoa izango da. Datorren urteko martxoan ekin nahi diote hotz kamerak ekoizteari. Zeregin horretan 25 langile izango dituzte hasieran.

Lehenengo ekitaldian bost milioi euroko fakturazioa espero dute. Produkzioa handitzen den heinean, langile taldea eta salmentak ere gora egingo dutela uste du Mondragonek. Horren harira, laugarren urtean 80 langile izatea eta salmentak 20 milioi eurokoa izatea espero dute. Indiako hotz kameren merkatuan liderra izan nahi dute.

Kide kooperatibak Bizkaian du egoitza nagusia; Berriatuan, hain zuzen ere. Panel isolatzaileak eta hotz kamerak egiten dituzte, eta liderrak dira Espainian nekazaritzako elikagaien sektorean hotz kameren salmentan.

Mondragoneko kideak filialak ditu Frantzian eta Portugalen. Gainera, Berriatuako plantatik, Europako eta Hego Amerikako beste merkatu batzuetan zerbitzatzen dituzte. Joan zen urtean, Kidek 30 milioi euro fakturatu zituen. Esan bezala, nazioarteko merkatuetan dihardu. Horren harira, Txinako Jiaxing hirian beste ekoizpen planta bat eraikitzen dihardute; ekainean lantegi hori inauguratzea aurreikusi dute.

**HITZARMENA** > AKORDIOA

## Diputazioak eta Baketikek gizartearen parte hartzea bultzatzeko hitzarmena sinatu dute



**SINADURA** Diputazioko Edurne Egaña eta Baketikeko Jonan Fernandez. GOIENKARIA

Eskualdeetan, guztira, hamabi ikastaro egingo dituzte; Debagoienean bakarra izango da: Arrasaten egingo da hori

**M.B.** > BERGARA

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Baketik Bake Zentroak elkarren arteko hitzarmena sinatu zuten egubakoitzean Donostian. *Ikasi parte hartzen* gizarte parte hartzearen gaineko formazio programa abian jartzea ahalbideratzen du akordio horrek. Sinadura ekitaldian Lehendakaritzako eta Foru Administrazioko diputatu Edurne Egaña eta Baketik Bake Zentroko zuzendari Jonan Fernandez izan ziren.

**IKASTAROA ARRASATEN**

Programa horren bidez gizartearen parte hartzea bultzatu nahi da. Baketiken esku egongo da formakuntzaren antolakuntza eta dinamizazioa. Abian jarriko diren ekimenen artean, eskualdeetan egingo diren hamabi ikastaro daude. Debagoienean ikastaro bakarra dago aurreikusita: Arrasaten. Ikastaroak maiatza eta ekaina bitartean egingo dituzte.

Ikastaroak sei ordukoak izango dira, bi orduko hiru modulutan antolatuta. Martitzenetan, eguaztenetan eta eguenetan izango dira, 19:00etatik 21:00etara. Ikastaro horietako materialarekin hiru argitalpen prestatuko dira; baita dekalogoa ere.



GOIENKARIA

## Italiarren bisita izan dute kooperatibek

Egubakoitzean 250 italiar izan ziren Arrasaten, kooperatibak ikusten. Trentino probintziako Val de Non bailarakoak dira eta 19 eta 22 urte artean dituzte. Horiekin batera, bi apaiz eta 11 alkate izan dira. Bisitan zehar, bi taldetan banatu ziren Mondragon Unibertsitatea eta Mondragoneko azpiegiturak ezagutzeko.

**POLITIKA** > ALKATEAREN DIMISIOAREN MOZIOA

# Etzi deklaratu beharko du Ino Galparsorok Garzonen aurrean

Agintari judizialari desobedientzia egitea egotzi dio Baltasar Garzonek Arrasateko alkateari eta Auzitegi Nazionalera joan behar da etzi 10:00etan

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Baltasar Garzon epaileak deklaratzera deitu du Ino Galparsoro. Arrasateko alkateak jaso duen zitazioak dio, "agintari judizialari desobedientzia" egin diola eta horregatik, Auzitegi Nazionalera joan behar dela Garzonen aurrean deklaratzera etzi, eguaztena, goizeko 10:00etan, inputatu gisa.

Ino Galparsoro Arrasateko alkateak komunikabideen bidez jakin zuen berria. "Zapatu goizean, etxean nengoela, irrati bidez entzun nuen albistea. Jakinarazpen ofiziala 13:45ean ekarri zidaten bi poliziek udaletxera", dio Ino Galparsorok. Baltasar Garzon epaileak, berriz, egubakoitzean hartu zuen Arrasateko alkatea deklaratzera deitzeko erabakia, PSE-EEk eta EAJk elkarrekin aurkeztutako mozioa bozkatzeko Arrasaten egin zuten ez ohiko osoko bilkuraren hurrengo egunean. Udalbatzarrak ez zuen mozioa onartu.

**URRATS BAT GEHIAGO**

Ino Galparsororen iritziz, gertaera hau "zorakeria honetako urrats bat gehiago da". "Argi dago EAE-ANVren aurka egiteko edozerk balio duela", gaineratu du. Arrasateko alkateak abokatuari erakutsi dio poliziek eramandako jakinarazpen ofiziala eta gaur, astelehena, goizean, aztertuko dute gertaera elkarrekin.

Baltasar Garzon epaileak otsailaren 8an kaleratu zuen EAE-ANVren jardueren etetea agintzen duen autoa eta agindu hori bete ez izana egotzi diolako deitu du deklaratzera Ino Galparsoro.

**EB-KO ZINEGOTZIAK**

Egueneko ez ohiko osoko bilkuran, PSE-EE eta EAJk elkarrekin aurkeztu zuten alkatearen dimisioa eskatzeko mozioaren aurka bozkatu zuten EAE-ANVk, Aralarrek eta EB Zutik koalizioko kide batek. Koalizioko beste biak, EBkoak, PP eta EA abstenitu egin ziren. Hain zuzen ere, bozketa horretan abstenitu egin zirelako, Gaspar Llamazares IUko koordinatzaile nagusiak Ander Rodriguez eta Joseba Ugalde alderditik kanpo daudela adierazi zuen. Ander Rodriguezek erantzun du eurak ez daudela IUra afiliatuta, Ezker Batura baizik, eta alderdi "burujabea" dela EB. "Euskadiko zuzendaritzak hartu behar du azken erabakia", argitu du Rodriguezek. Mikel Arana EBko presidentziarako bozeramaileak onartu du ez bi zinegotziek estatutuen barruan jokatu duela argitu du. Ezker Batua alderdiak maiatzaren 31n eta ekainaren 1ean egingo du Batzar Orokorra eta estatutuak aldatzeko asmotan dabiltzala iragarri du.



**OSOKO BILKURA** Arrasaten eguenean egin zuten ez ohiko osoko bilkuran ateratako argazkia. GOIENKARIA

OSOKO BILKURA BERGARAN

## Bergaran hiru mozio bozkatuko dituzte gaur

Hiru mozio bozkatuko dituzte Bergaran gaur: PSE-EE eta EAJ alderdiek elkarrekin aurkeztuko dutena eta EAE/ANVren eta Aralarren mozio alternatiboak. Badirudi bakoitzak bere mozioa babestuko du bakarrik eta EA abstenitu egingo da PSE-EE eta EAJren mozioaren aurrean. Beraz, gauzak horrela, Bergaran ere ez dute moziorik onartuko.

EAEko Agurne Barrusok aurreratu duen moduan, bere alderdiak mozio alternatiboa aurkeztuko du, Arrasaten egin duen moduan, eta horixe babestuko du bakarrik, "beste bietan kontra bozkatuko dugu".

Aralarrek ere mozio alternatiboa aurkeztuko du, Arrasateko berdina, eta Mikel Etxanizen esanetan, horixe da babestuko duten mozio bakarra: "PSE-EE eta EAJren mozioaren aurka bozkatuko dugu, lehenengo puntuan gaudelako bakarrik ados eta ezin daitekeelako mozioa puntuz puntu bozkatu. EAErena ere ez dugu babestuko".

Bestalde, EAko Lauri Askargortak esan du abstenitu egingo dela PSE-EE eta EAJren mozioaren bozketan. "Mozio horrek hiru puntu ditu eta lehenengo biekin egiten dugu bat, baina ez testu osoarekin", dio Askargortak.

Guztira 20 puntu bozkatuko dituzte osoko bilkuran, mozio honez gain, baita AHTrena, EHNErena eta Chernobil elkarteak aurkeztutakoa ere. bozkatuko dituzte tartean. Osoko bilkura 19:30ean izango da.

**Jose Ramon Garcia** > Enpresaria

# "Etxeko tresneria digitalean dago etorkizuna, kablerik gabeko gailuetan"

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

**Jose Ramon Garcia MP3en merkatuan liderra den Blusens enpresako presidentea eta zuzendaria da. Mondragon Unibertsitateko enpresa zientzien fakultatean egon da arrakastaren zergatia azaltzen.**

**Nola lortu produktuak arrakasta izatea?**

Arriskatu egin behar da eta ez da beldurrik izan behar. Ideiak garbi izanez gero, produktua martxan jartzeko dirua ere lortu egiten da.

**Zuek ondo asmatu duzue produktuarekin, MP3arekin.**

Produktu elektronikoak gero eta azkarrago aldatzen dira eta hobetzeko aukera handiak ematen dituzte, adibidez: DVDa, MP3 edo nabegatzaileak.

**Erabiltzeko errazak izan behar dira arrakasta izateko?**

Saiatu behar gara jendeari bizitza ez konplikatzen. Produktu berritzaileak bai, baina ez teknikoendako bakarrik, publiko guztiarendako.

**Nolakoa da produktu elektronikoen euskal kontsumitzailearen perfila?**

Euskal kontsumitzailea oso informatuta dagoela konturatu naiz, eta hori ona da. Informazio asko du eskura, badaki informazioa bilatzen, teknologia berriak ezagutzen ditu eta badaki aukeratzen. Edo azken tendentziekin batera zoaz, edo jokoz kanpo gelditzen zera.

**Produktu elektronikoen merkatua lehiakorra da?**

Konpetentzia globala dago, atzerriko multinazionalen esku dago eta mundu guztira heltzen dira produktuak. Oso lehiakorra da merkatua eta tamainak ere inportantzia handia du, gainera.

**Zein da etorkizuneko produktua?**

Uste dut MP3aren bolada pasatzen dabilela. Egun telebista lauan badago merkatua baina etorkizuna, dudarik gabe, etxeko tresneria digitalean dago. Eta hortxe ari gara lanean buru belarri. Kablerik gabeko etxeko tresnak dira etorkizuna, kanpotik ere programatu daitezkeen etxeko tresnak, bizitza erraztuko dutenak.



GARCIA Jose Ramon Garcia. MU

**GERTAERA**

## Gaur da Oñatiko gaztearen hileta

**O.E.** > BERGARA

Gaur, astelehena, egingo dute egubakoitzean hil zen Aratz Ugarte 17 urteko oñatiarraren hileta elizkizuna, 19:00etan Mikel Goiaingeruaren elizan.

Ertzaintzako prentsa bulegoak azaldutakoaren arabera, 17:55ean jaso zuten deia SOS Deiaken. Dirudienez, gazte oñatiarra bizikletatik erori zen Albitxuri baserriaren inguruan, GI 3591 errepidean, Kortako gainaren parean. Berarekin zihoan lagun batek egin zuen deia. Abisua jasotzean, Ertzaintza gertaeraren tokira joan zen eta Osakidetzako helikoptero batek Arantzazuko aparkalekuan hartu zuen lur, baina medikuak ezin izan zuen ezer egin.

Nestor Basterretxea joan zen eguenean izan zen gurean. Oñatiko zineklubarekin batera elkarlanean, Elkar Hezi ikastetxeak 'Ez dok badok Amairu' jardunaldiak antolatu ditu. Aurpegi ezagunak gonbidatu dituzte horietan parte hartzeko; tartean, Nestor Basterretxea. Artistak *Ama Lur* dokumentalaz hitz egiteaz gain, buruan dituen proiektuetaz mintzatu da.

**Nestor Basterretxea** > 'Ama Lur' filmaren zuzendaria

# "Ez naiz erretiratuko; bokazioak ez du adinik eta artista lan egiten hiltzen da"

MIRIAN BITERI > OÑATI

**Nestor Basterretxea pozik dago *Ez dok amairu* mugimendua gogora ekarri izan dutelako. Garai hartako oroitzapenetaz eta *Ama Lur* dokumentalaren gainean hitz egin digu datozen lerroetan.**

**Nola gogoratzen duzu *Ez dok amairu* mugimendua?**
Niretako errebelazioa izan zen. Euskadin edozein mugimendu kulturalari uko egingo zitzaiola uste nuen eta beraz, errebelazioa izan zen. Mugimenduko partaideak ezagutzen nituen; izugarriak guztiak. Horietako batzuk bizirik daude oraindik. Horiek mugimendua hasi zuten eta nik, *Ama Lur* pelikularekin, errematatu nuen.

**Zer oroitzapen duzu *Ama Lur* egin zen urte horietaz?**
Elgoibarretik Markinara emaztearekin joaten nintzela, herri ikaragarria genuela eta horren gaineko filma egitea bururatu zitzaidan. Garai hartan, *Pelotari* filma egiten nenbilen. Laburmetraien lehiaketa irabazi genuen eta txartel horrekin Bilbora joan nintzen eta proiektuaren alde jarri ziren nazionalistak ezagutu nituen. Baina, diktaduran murgilduta geunden, eta horrek arrisku batzuk sortarazten zituen. Madrilen tankera txarra hartu zioten.

**Nola hartu zuen garai hartako gizarteak esandako filma?**
Sekulako arrakasta izan zuen inaugurazio ekitaldian nahiz hurrengo hilabeteetan. Jendeak negar egiten zuen, ez zuen eta uste horrelako zerbait egiterik zegoela diktadura batean. Erantsi asko jartzera behartu bagintuzten ere, filmak herriaren protesta jasotzen zuen. Inaugurazio ekitaldian, lau minutu iraun zuen txaloekin agurtu gintuzten. Hori oso pozgarria da.

Filma derrigorrez triunfalista izan behar zen; ez geunden autokritikak egiteko moduan. Garai hartan, jarrera hori baino ezin zen erabili; batuta geundela eta euskaldunak ginela ozen adieraztea. Horrelako keinu batek Madrilgo gobernua izorratzen zuen.

**Askotan esan duzu filmak ez zuela zentsuraren hatzaparretatik ihes egiterik izan...**
Bai, hala da. Gainera, zentsura hori gehienetan ustekabean harrapatu gintuen; uste ez genituen gauzei eragin zion eta. Gogoratzen du, bereziki, Xalbador eta Muniategi bertsolariak anai deitzen direnean. Bat frantsesa zela eta bestea espainola zela erantzun zuen Gobernuak.

Sekulako zentsura jasan behar izan genuen. Madrilen Fragaren koinatuarekin biltzen nintzen eta sekulako errietak botatzen zizkidan. Haserretzen zen Gernikako arbola neguan filmatu genuelako. Ezer ez zegoen kontuekin geratzen zen. Donostiako alkateak salatzen gintuen horren aurrean eta aldatzera derrigortzen gintuzten. Dokumentalari ukitu espainola ematen saiatu zen behin eta berriro.



Goiko irudian Nestor Basterretxea, eguenean Oñatin izandako solasaldiaren aurretik. MIREIA BIKUÑA

'AMA LUR'

**"Jendeak negar egiten zuen ikustean, ez zuen eta uste horrelako zerbait egiterik zegoela diktadura batean"**

ZATIKETA

**"Garai hartan, denak batuta geunden eta gaur egun, berriz, ez. Orain ezingo genuke horrelako produkzioa egin "**

GAUR EGUNGO LANA

**"Eskultura bat egiten nabil Bizkaian egiten ari diren berrikuntza gune baterako. Busturian dago hori"**

**Gaur egun horrelako produkzio bat ezin izango zela egin aipatu duzu. Zergatik?**
Hala da. Edozein diktadurak daukan gauza on bakarra da horren aurrean batzen duela. Eta garai hartan, denak batuta geunden eta gaur egun, berriz, ez da hori gertatzen.

**Aurten *Ama Lur*rek 40 urte betetzen ditu. Nola eramaten duzu zure lana euskal nortasunaren erreferentea izatea?**
Pozgarria da. Oztopo guztien gainetik, abentura hori oso ondo irten zen eta gaur egun, film hori digitalizatu izana eta 5.000 aleko tirada bat egitea oso polita iruditzen zait. Gainera, esan didate gazte asko ari direla filma erosten. Guzti horrek pozten nau.

Ez niregatik bakarrik. Filma egiterakoan jendea oso ondo portatu zen. Langile batek, esaterako, soldata osoa jarri zuen horretarako. Herriak egina eta herrirako eginiko filma da *Ama Lur*.

**Zer iruditzen zaizu *Ez dok amairu* mugimendua gogora ekarri izana?**
Oso ondo. Beharrezkoa da horrelako zerbait egitea. Balio handikoa mugimendua izan zen eta beraz, ez nau harritu gaur egun hori gogora ekarri izana; merezi dute eta.

**Gaiaz aldatuko dugu. Oñatin izanik Arantzazura hurbildu zinen eguenean?**
Ez. Arantzazurekin oso haserre nago. Madrilera egindako bidaia bat aprobetxatuz, fraideek kriptan egiten nenbilen hamaika irudi-horma borratu zizkidaten. Gaur egun, oraindik, ulertzen ez dudan jarrera bat da. Publikoki barkamena eskatzea baino ez diet eskatzen, egindakoagatik.

**Zertan ari zara orain lan egiten?**
Eskultura bat egiten nabil, Bizkaian egiten ari diren berrikuntza gune baterako. Busturian dago hori, Bermeo nire herri ondoan; oso pozik nago zeregin horretan. Horrez gain, erakusketak egiteko hainbat egitasmo dut. Ez nago geldi eta agian, abusatzen nabil.

**Diziplina askotan ibilia zara. Zeinekin zaude erosoago?**
Guztietan nago gustura. Pintura asko gustatzen zait eta sekula ez dut utzi margotzeari eskulturetan. Diseinu industriala ere gustuko dut; gaztetan arkitektoa izan nahi nuen.

**Dagoeneko 84 urte dituzu. Ez zara sekula erretiratu behar?**
Ez, sekula ez naiz erretiratuko. Bokazioak ez dit horrelakorik egiten uzten. Erretiroa da lanean gustura ez dauden pertsonendako. Baina, bokazioak ez du adinik; artista lan egiten hiltzen da.

## oharrak eta deialdiak

BERGARA
**> Prudentzio Deunaren eguna ospatuko dute**
Prudentzio Deunaren omenezko jaiak gaur, astelehena, bukatuko dituzte Elorregin, mezarekin, 19:00etan.

ARRASATE
**> Mozart eta Bruckner entzutera joango dira**
W.A. Mozarten *Fa handian pianorako 19. kontzertua* eta A. Brucknerren *Mi txikian 7. sinfonia* entzutera joango dira Euskalduna jauregira maiatzaren 23an Iturripe elkartekoak. Argibideak: 620 55 99 79.

BERGARA
**> Nekane Eskibelen lanak Nahikarin**
Nekane Eskibelen erakusketa ikusi ahal izateko azken egunak Masterrekako Nahikari tabernan.

OÑATI
**> 'Bazterketaren iparra eta hegoa' ikastaroa**
Tau fundazioak eta Gipuzkoako Caritasek *Bazterketaren iparra eta hegoa* delako ikastaroa antolatu dute maiatzaren 10erako eta 11rako Gandiaga Topagunean. Izenematea: 943 28 99 56 edo 943 44 07 44.

ARRASATE
**> Asisko Urmeneta Udal Euskaltegian**
*Cómo aprender euskara en 40 años y un día facilmente* saioa egingo du etzi, eguaztena, 09:15ean.

**> 1927an jaiotakoek bazkaria egingo dute**
1927an jaiotakoek bazkaria izango dute maiatzaren 3an Zumelaga jatetxean, 14:00ertan. Izenematea Kutxan, eguaztenera arte.

OÑATI
**> 1982an jaiotako guztiei dei egiten diete**
1982an jaiotako talde bat kinto ospakizuna antolatzen dabil, eta urte horretan jaiotako denei dei egiten diete euren izen-abizenak eta helbidea bidaltzeko *kinttuak82@gmail.com* helbidera, Datu Babes Legea dela-eta, ezin dituztelako datu horiek Udaletik lortu.

BERGARA
**> Gurasoek Berriketan egiteko aukera**
Euskaldun zaharrek euskaldun berriei laguntzeko Berriketan programan, Guraso lagun proiektuari ekin diote, hau da, guraso batzuk bateratu eta umeendako begiralea jartzea. Argibideetarako, deitu Jardunera (943 76 36 61).

ARRASATE
**> Tai txi ikastaroa, arratsaldeetan**
Arratsaldeetan Tai txi egiteko taldea osatzeko izena eman daiteke Aukean. Astean bi egunetan izango da, 18:30etik 19:45era; abonatuek 38,75 euro ordaindu beharko dute, eta gainerakoek, 48,75.

DEBAGOIENA
**> Getafeko Electric Weekend-era autobusa**
Maiatzaren 30ean eta 31n Getafen (Madril) izango den Electric Weekend jaialdira joateko autobusa antolatu dute herritar batzuek. Argibideak: 615 00 67 60 edo *xabikip@hotmail.com*.

ARETXABALETA
**> Iratxera irteera egingo dute erretiratuek**
Iratxera irteera egingo dute Basotxoko erretiratuek maiatzaren 7an. 24 euro da.

OÑATI
**> 1979an jaiotakoek bazkaria egingo dute**
1979an jaiotako oñatiarrek batera bazkaltzeko aukera izango dute maiatzaren 17an. Aker tabernan batuko dira 12:30ean, eta Soraluzen bazkalduko dute 14:30ean. Izenematea zabalik dago maiatzaren 9 arte, 50 euro sartuta Kutxako 2101 0057 57 0124516295 kontu korrontean.

DEBAGOIENA
**> XML teknologiaren gaineko ikastaroa**
Asmoz Fundazioak *XML teknologia: oinarriak eta tresnak* delako *on-line* ikastaroa antolatu du. Gainditzen dutenek 50 orduri dagokien diploma jasoko dute. Maiatzaren 5ean hasi eta ekainaren 30era arte izango da. Izenematea zabalik dago *xml.asmoz.org* webgunean.

BERGARA
**> Angiozarren elkartea sortu nahi dute**
Angiozarren elkarte gastronomiko-kulturala sortzeko bazkide bila dabiltza. Elkarte euskalduna izango da eta gizonezkoak nahiz emakumezkoak hartuko ditu. Familia girokoa izan nahi du. Izena ematea: 669 56 74 07. Etzi, eguaztena, da horretarako azken eguna.

ARRASATE
**> Araotz-Andarto-Degurixa mendi ibilaldia antolatu dute Marimendik eta Emakume Txokoak**
Araotz-Andarto-Degurixa mendi ibilaldia antolatu dute maiatzaren 17rako, zapatua. Ibilaldia emakumeei zuzenduta dago, eta argibideak-eta euskaraz izango dira. Izena emateko aukera dago Emakume Txokoan, 943 79 41 39 telefonora deituta, edo *emakumetxokoa@arrasate-mondragon.net* helbide elektronikoan.

943 25 05 05
goienkaria@goiena.com

## etxeko leihotik



**Inazio Arregi** > Goienako zuzendaria

# Deba ibaiko ur nahasiak

Deba ibaiko urak nahasi etorri dira azken hilabetean. Isaias Carrascoren erailketak zauri sakonak utzi ditu biolentzia helburu politikoak lortzeko bidearekin bat egiten ez dugunongan. Gertukoenen jarrerak bortitzagoak izan dira. Ulertzekoak heriotza gertutik bizi edo euren bizitzak bizkartzainez inguratuta eman behar dutelako.

Ez ditut gustuko izan hainbat politikari garrantzitsu eta iritzi emaileen jarrerak: Nirekin bat ez baduzu egiten hiltzaileekin zaude, edo koldar bat zara mezuarekin pozoitu nahi izan gaituzte, berriro guztiok pentsamentu bakarreko basamortura eramateko saio bat egi-naz.Esku artean ditugun arazoak oso dira larria eta horiek gainditzeko akordio sozial zabalak beharko dira. Herri bat eta bere sentsibilitate guztien indarrak norabide horretan jarriko dituzten akordioak beharko dira, eta iruditzen zait jarrera koiunturalen gainetik hainbat dogma eta egia ukiezin matizatzeko ahaleginak egin beharko ditugula guztiok.Ez dirudi hori izango denik epe motzera landuko den eszenategia. Indar politikoak etengabeko berkokapen batean ikusiko ditugu hurrengo hilabeteetan. Urria bitartean seguru. Gero jakin ez.

**"Akordio zabalak behar dira ditugun arazo larriak konpontzeko"**

**> Ganbara** Bitartean **gure bizitzak aurrera darrai. Atzo, Oñatiko Ganbara Abesbatzak senditartekoei urtero eskaintzen diguten kontzertua eta bazkaria izan genuen. Jarrai bezate urte askoan.**

**> Malagara** Beste **batzuk Malagaraino egin zuten. Xabier, Otsua, Pana eta besteak majo disfrutatuko zuten. Astean zehar adi-adi izango gaitzute larunbateko gorabeherak entzuteko irrikaz.**

## debagoiendarrak kanpoan

**Asier Bidaburu** > Arrasate

# "Arrasatekin konparatuz oso hiri tristea da Wrexham"

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

**Asier Bidaburu arrasatearra Galesko Wrexham hirian lurreratu zen iazko irailean. Ikasketak izan dira bere bidaiaren arrazoia eta bertan gustora bizi dela aitortu digu. Baina norberaren jaioterria ez da hain erraz ahazten eta bi hilabete eskas barru gurera bueltatzeko asmoa dauka.**

**Noiz joan zinen Galesera?**
2007ko irailean joan nintzen, Galesko Wrexham izeneko hiri batera. Galeseko iparraldean kokatuta dago eta guztira 65 mila pertsona bizi dira. Ingalaterratik oso hurbil dago, Liverpool-etik kotxez 20 minututara.

**Zein helbururekin joan zinen Wrexham-era?**
Ingenieritza Aeronautikoko ikasketak direla-eta etorri naiz.

**Nongo bizimodua duzu nahiago, hangoa ala hemengoa?**
Egia esan, etxean baino hobeto bizitzea zaila da. Arrasateko bizitzarekin konparatuz oso ezberdina da hemen daramadan bizitza.

Hala ere, hemen ez naiz hain gaizki bizi. Gauza bat du Galesek gorrotatzen dudana: klima. Sekulako haizea egiten du eta euria eguneroko ogia da hemen. Egunero zira gainean izan beharrak asko nekatzen nau.

**Zer botatzen duzu faltan zure herritik?**
Zalantza izpirik gabe, Arrasaten izaten den giroa beraren igarri dut gehien. Wrexhamen arratsaldeko 5etatik aurrera ez dago inor kalean. Hasieran hain goiz kaleak hilik egoteak asko harritu ninduen. Hiri hau Arrasate baino askoz tristeagoa da.



**Ingenieritza aeronautikoa**
Azken kurtsoa egiten ari da Asier Galesen. Gustora bizi arren ekainean Arrasatera bueltatzeko asmoa dauka.

**Ba al duzu harremanik zure Arrasateko lagunekin?**
Gabonetan eta Aste Santuan Arrasaten izan nintzen eta egon nintzen nire lagunekin. Logikoa denez, harremana hoztu bada ere, nire lagunak ez ditut galdu, ezta gutxiago ere. Hemen nagoenean, baina, nahiko alperra naiz e-postak bidaltzeko eta ez dut asko idazten. Lagunekin komunikatzeko, askotan, Interneten zabaldu genuen foro baten bidez egiten dut.

**Zein ezberdintasun dago , zure ustez, Galesko eta Arrasateko jendearen artean?**
Oso desberdinak gara. Gu lotsatiak garela badiote, hemen are lotsatiagoak dira. Nire ustez, askoz alaiagoak gara gu, eta askoz lasaiagoak. Hemen oso basatiak dira, bereziki mozkortu egiten direnean. Begirada txar bat sekulako borroka baten iturri izan daiteke; nire begiekin ikusi izan dut hori.

Bestalde, futbolzale amorratuak dira, gu baino askoz gehiago. Wrexhameko taldea, esaterako, 3.mailan dago. Hori horrela izan arren, bere futbol zelaian 14 mila pertsona sar daitezke. Bete egiten ez den arren, jende asko joaten da euren taldea sutsuki animatzera.

**Bueltatzeko asmorik bai?**
Hemen gustora bizi naizen arren, badut Arrasatera bueltatzeko gogoa, herrimina izango da. Ekainean-edo han izango naiz.

**kale inkesta**

# Zabalik da errenta aitorpena egiteko epea. Egin duzu? Diru hori ondo erabiltzen al da?



**Jose Antonio Cantero**
Langilea
Bergara

Ez, oraindik ez dut egin errenta aitorpena. Ez dut uste jasotakoa ondo erabiltzen denik; poltsikoak betetzeko erabiltzen dute eta gero kaleak eta konpontzeko beste zerga batzuk ordaindu behar ditugu.



**Beatriz Elkoroberezibar**
Langilea
Bergara

Niri eginda bidali didate etxera errenta aitorpena. Egia esan ez dut inoiz pentsatu dirua era egokian erabiltzen duten, edo zertarako erabili beharko litzatekeen. Nik egin egiten dut, eta listo.



**Lierni Mujika**
Langilea
Bergara

Aurten oraindik ez dut egin, ez didate bidali, eta egia esan nola egin ere ez dut pentsatu. Nik espero dut dirua era egokian kudeatzen dutela. Guztiontzako hobekuntzak egiteko erabili behar da jasotako dirua.



**Javier Diaz de Gereñu**
Langilea
Bergara

Aurreko urteetan bezala, eginda bidali didate errenta aitorpena. Beti hobetu daiteke diru horri egiten zaion erabilera, gastu soziala handituz eta bost izarretako museo gutxiago eginda adibidez.

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 05

**goienkaria@goiena.com**

OÑATI

**> Txaloak Ikusi Makusi antzerki taldearentzat**

Oñatiko irakurle batek deitu digu, Ikusi Makusi antzerki taldea zoriontzeko. Orain dela gutxi, erretiratuen antzerki taldeak egindako *Nos vamos de vacaciones* antzezlana ikusteko aukera izan zuela, eta benetan polita iruditu zitzaiola esan digu. Askotan horrelako talde amateurrek egiten duten lan bikaina ez dela aitortzen dio irakurle gazte honek, eta oraindik meritu handiagoa ematen die Oñatiko erretiratuei, horren proiektu ederrak aurrera eramatearren.

ELGETA

**> Lotsagarria 'Intxortako Atea'-ri egindako erasoa**

Elgetako gizon baten e-maila jaso dugu astean zehar, *Intxortako Atea*-n aurreko egunetan azaldutako pintadak salatzeko. Haren iritziz, lotsagarria da hainbat jendek agertzen duen errespetu falta. Elgetako monumentua gudariei eskainitakoa dela gogorazi nahi du, eta gutxienez errespetua zor zaiela hildakoei.

DEBAGOIENA

**> Bizikletan ibiltzeko zailtasunak**

Beste behin, txirrindulzale baten kexa jaso dugu aste honetan. Debagoieneko errepideen egoera tamalgarria dela dio, eta lehenbailehen beharrezko konponketak egiteko eskaera luzatu nahi du. AHTko eta tranbiako proiektuekin ametsetan egin beharrean, eguneroko arazoei eusteko eskatzen die politikariei.

**usteak uste**

**Mireia Bikuña**

## Maiatzetik uztailera arte beltza nagusi

Bi egun besterik ez dira falta maiatzaren 1eko zubia hasteko. Urte hasieran egutegiak egin genituenean, konturatu ginen urteak zubi oso gutxi zituela (urriaren 12 eta azaroaren 1 zapatuak dira). Aste Santuan hartu genituen lehen oporrak, eta eguenetik aurrera hartuko ditugu bigarrenak. Horren harira, aprobetxatu egin behar dugula oraingo zubia, aizue! Hurrengo astelehenetik aurrera beltz kolorea izango da-eta nagusi egutegietan. Indar berrituta etortzea komeniko zaigu, beraz. Oraindik oso urruti geratzen da uztailaren 24a. Dena den, zubi honetan lan egiten behar duenik badago, adibidez, datorren astelehenean etxean jasoko duzuen *Goienkaria* egingo duten lankideak. Animuak guztiendako!

**zorroztailea**



**Elena Laka**

# Zahartu gaitun

"AEBtan tesia egin ostean, Debagoienera itzuli zen Monika Madinabeitia. Euskal diasporarekin kontaktuan jartzeko aukera izan zuen han eta, horren gaineko ikasgaia ematea bururatu zitzaion. (...): 'Hamaika ikasle ditut. Hasieran, uste dut ez zekitela oso ondo nondik nora joango zen ikasgaia. Ikasgaiaren titulua, gainera, oso zabala da. Baina, ez nuen erabili gura *diaspora* hitza, askok ez dutelako ezagutzen'.


"Euskalduna izatea ez da toki fisiko edo pasaporte bati lotutako zerbait"

Goienkaria > 2008-4-25

Gure amonen garairarte belaunaldien arteko tartea ezartzen zuena, adinaz gain noski, jakinduria zen. Belaunaldi nagusiak adinduago eta jakintsuago ziren, bizitzan metatutako esperientziari esker. Berrogei urteko pertsona edadetua zen duela hirurogei urte. Landatzeko eta hazteko garaia eginak zeuzkan, eta adin horretatik aurrera uzta garaian bizi zen. Horrek jakindurian oparotasuna ekartzen zion, eta bere esanak kontutan izaten ziren, gazteek ez zekizkiten kontuetan ebazterakoan.

Gaur egun zahar izateak balio eskasa du. Berrogei urtekoak ez dira adindu, ume txikien guraso baizik. Berrogeitamarrekoak bikini eta fraka motzetan dabiltza, eta hirurogei urtekoek bizitza berrirako planak egiten dihardute. Bat ere zerikusirik ez garai bateko uzta garaiarekin.

Zahar itxura galtzearekin batera, gaurko adinekoek zaharrei aitortzen zaien jakinduria ere galdu dute, gaurko adinduek ez baitaukate inpresioa gazteek baino gehiago dakitenik. Alderantziz: zenbat eta gazteago, gero eta prestatuago eta ondo ikasiago. Teknologia berriak aise menperatzeak gazteei jakinduriaren barniza ematen die, adin batetik aurrerakoek txundituta ikusten dutena. Berrogei urtekoek ez dute euren burua zahartzat ikusten, baina gutxik dakite, adibidez, *youtube*-n bideoak eskegitzen.

**"Berrogei urteko pertsona edadetua zen duela hirurogei urte"**

**"Gaurko adinekoek zaharrei aitortzen zaien jakinduria ere galdu dute"**

Horregaitik bere burua zahar ikusten ez duen berrogei urteko bat harritu egiten da irakurtzen duenean hogei urteko askok ez zutela ezagutuko *diaspora* hitza. *Play stationa* bai, hiztegia ez? Zer dakite gutxi barru gure umeei irakasten ibiliko diren hogei urteko ikasleek, ez badute *diaspora* hitza ezagutzen? Zein da eskaintzen zaien hezkuntza, dena txiki-txiki eginda, dena ondo ulertu dezaten, hiztegian hitz baten bila ibili ez daitezen?

Kitto, berrogei urtekoa zaharra da. Hain zuzen, gure amonen garaian zein gaur egun, belaunaldien artean dagoen lubakia horrela hasten zelako: "nola gaurko gazteek ez dakitela? Gure garaian..."

ASTELEHENEKO **Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Edu Mendibil **Erredakzioa** Mireia Bikuña, Txomin Madina, Oihana Elortza **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Alex Azkarate **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**> ARRASATE** Extremadurarren 18. Kultur Astea jarri dute abian **> 10**



**> BERGARA** Domingo Irala kaleko lanak martxa onean doaz **> 11**



**> OÑATI** Arrasate-Oñati lasterketarako izenematea zabalik **> 12**



**> ARAMAIO** Horma-irudien lehiaketa deitu dute San Martin jaiei begira **> 14**

**ELGETA** > OMENALDIA

# Ibilaldia egin dute Elgetan 1937ko frontean hil zirenak omentzeko

**AZALPENAK** Bost geldigune egin dituzte eta historialari batek azalpenak eman ditu gune bakoitzean

**OMENALDIA** Elgetako Udalak eta 1937 Intxorta kultur elkarteak antolatu dute

**JENDEA** Ibilbidean ehun lagun inguruk hartu dute parte, adin guztietakoak



**HISTORIA** Jesus Gutierrezek plazan eman zituen lehen azalpen historikoak. JOSETXO ARANTZABAL

**OIHANA ELORTZA** > ELGETA

1937ko apirilaren 24an jausi zen Elgetako frontea eta urteurrena ospatzeko eta orduan hil zirenak omentzeko, mendi txangoa eta lore eskaintza egin zuten domeka goizean Elgetan. Jesus Gutierrez historialariak gerraren eta orduko egoeraren eta gertaeren azalpenak eman zituen ibilbideko gune seinalatuetan, "ez delako gauza bera gertaera horiek liburuetan irakurtzea edo bertatik bertara ikustea".

**BOST GELDIUNE**

Ibilaldia plazatik abiatuta egin zuten eta hantxe, plazan, eman zituen lehen azalpenak Julio Gutierrezek. Gerraren hasiera nolakoa izan zen azaldu zuen han. "Gerraren hasiera ezin daiteke ulertu Errepublika kontuan izan barik. Gipuzkoan Eibarren eta Elgetan eutsi zioten bakarrik Errepublikari", gogorarazi zuen Gutierrezek.

Plazatik Asentziorako bidea hartu zuten ibiltariek. Intxortako Atea izeneko monumentuaren aurrean, toki horren garrantzi estrategikoa azpimarratu zuen historialariak. "Matxinatuek Bilbora heldu gura zuten, hiria eta hango industria bereganatzeko. Horretarako Elgetatik pasa behar zuten. Gipuzkoan ez zuten arazo handirik izan aurrera egiteko, Irunen salbu, eta pentsatzen zuten aurkari hauek ere laster gaindituko zituztela, baina ezustea hartu zuten, gogor eraso zietelako hemengo gudariek", azaldu zuen. "Etxeko eskopetez gain, Txekiatik ekarritako armak eskuratu zituzten gudariek eta gogor egin zieten aurre matxinoei. Ezintasuna erronka bihurtu zen matxinatuendako. Profesionalak ziren eurak, eta baserritarrak besteak, eta ezin zuten onartu eurak gainditzea", jarraitu zuen Gutierrezek.

Asentziotik, mendiko bidea hartu zuten ibiltariek. *La Belga* izeneko gunean, Belgikatik etorritako internazionalista talde baten laguntza gogoratu zuten eta Ansuategi baserri inguruan ere izan ziren, duela hiru bat urte fusilatutako lagun batzuen gorputzak agertu ziren tokian.

## Gudariak eta zibilak omentzeko lore eskaintzak ere egin zituzten domekan

Elgetako Udalak eta 1937 Intxorta kultura elkarteak elkarrekin antolatu zuten atzoko ekitaldia. Mendi txangoarekin batera, lore eskaintza ere egin zuten ibilaldiaren bi gunetan: Intxortako Atea izeneko monumentuaren aurrean, Asentzion, eta Salbador ermitan. "Bi lore eskaintza egin ditugu pertsona ezberdinak omendu gura ditugulako: Asentzioko lore eskaintzarekin gerran hil ziren gudariak izan ditugu gogoan. Salbador ermitako eskaintzarekin, berriz, gerran hildako zibilak omendu gura ditugu. Azkenean, ehunka lagun hil ziren gerra horretan", azaldu du Joxe Ramon Garaik, Intxorta 37 kultur elkarteko kideak.

Gainera, Jose Ramon Garaik aurreratu duen bezala, "gaurkoa frontekoak omentzeko lehenen ekitaldia izan da, baina ez azkena. Aurrerantzean ekitaldi gehiago ere egingo ditugu. Asmoa da urtean bi hitzordu egitea: bat apirilean eta beste bat urrian".



OXEL EROSTARBE Elgetako alkateak egin zuen lore eskaintza. J.A.

**SOMALIAN** > SEI EGUNEKO BAHIKETAREN ONDOREN

# Mikel Arana eta 'Playa de Bakio'-ko marinelak aske utzi dituzte

Zapatuan eta atzo gurasoekin hitz egin zuen Mikelek eta ondo dagoela esan zien

Baliteke etzi edo eguenerako Mikel Arrasaten izatea

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Somalian bahitutako marinelak, Mikel Arana arrasatearra tartean, zapatu arratsaldean askatu zituzten. Espainiako armadaren fragata batek babestuta Scheychelletara bidean da *Playa de Bakio* atun-ontzia. Mikel Aranaren gurasoek zapatu arratsaldean bertan, 16:30ak aldera, jaso zuten berri pozgarria. Zapatuan eta atzo, domeka, Mikelekin telefonoz hitz egiteko aukera izan zuten. Mikel ondo dagoela esan zigun Joxe Mari Arana haren aitak: "Bai, azterketa medikoa egin diote eta fisikoki zein psikologikoki ondo dago. Badirudi, 'ondo' tratatu dituztela, nahiz eta armatutako gizonek bahitu dituzten eta haien modu txarrak eta probokazioak jasan behar izan dituzten".

**SCHEYCHELLETIK MADRILERA**

Esan bezala, dagoeneko Scheychelleetara bidean dira Mikel Arana eta haren tripulazio-kideak. Atunontziaren jabe den Pevesa enpresak hango Mahe irlan dauka basea, eta *Méndez Núñez* fragatak babestuta hara iritsiko dira. Joxe Mari Aranaren hitzetan, "oraindik ez dugu konfirmaziorik, baina baliteke hegazkin militar batean ekartzea handik. Maiatzaren 1ean Mikelekin elkartzeko itxaropena daukagu".

Bermeoko *Playa de Bakio* atun-ontziko 26 tripulatzaileak (tartean bost euskaldun) itsaslapurren talde batek bahitu zituen. Hainbat iturriren arabera, 770.000 euro inguruko erreskatea ordaindu behar izan dute. Joxe Mari Aranak zera esan digu: "Guri bost axola. Bahituta egon diren momentutik biktimak ziren eta sufrimendu barik eta modu baketsuan askatzea baino ez genuen nahi". Une oro Jaurlaritza, Kanpo Harremanetarako Ministerioa eta Pevesa alboan izan dituztela gaineratu zuen.


Mikel Arana. GOIENKARIA

**OSASUNA** > FIBROMIALGIA EDO NEKE KRONIKOA

# Fibromialgiaz arduratzeko zerbitzua, Arrasaten

Jose Luis Iñarra kalean lokala utzi die Udalak; oraingoz, terapiak egingo dituzte

**U.M.** > ARRASATE

Fibromialgia edo neke kronikoa duten gaixoendako zerbitzua abiarazi behar dute Arrasaten. Gaixotasun horrekin arduratzen den Bizi Bide elkarteak zabalduko du lokala, "Arrasateko bazkideei zuzenduta, momentuz, egokitutako terapiak egiteko".

**20 BAZKIDE, ARRASATEN**

Izan ere, orain dela lauzpabost hilabete dela, Bizi Bide elkarteak Arrasaten eman zuen hitzaldi baten harira, konturatu ziren Arrasaten gaixo asko zegoela, "20 bazkide berrik eman zuen izena orduan, eta gainera gauzak egiteko gogo handiarekin". Hori ikusita erabaki dute Bizi Bide elkartekoek Arrasaten euren bazkideei zerbitzua emateko lokala zabaltzea. Dagoeneko Udalak utzi die bat, Jose Luis Iñarra kaleko 32. zenbakian, eta euren asmoa da "iraila-urrirako hastea, baina oraindik ez dago ezer erabakita".

**MEDIKUAREN HITZALDIA**

Edozelan ere, bitartean, bihar martitzena, fibromialgiaren gaineko aspektu medikuak aztertzeko hitzaldia antolatu dute. Jesus Acin medikua da hizlaria, fibromialgiaz asko dakiena, Bizi Bide elkartetik diotenez: "Osakidetzan dihardu lanean, familia mediku internista moduan eta horrez gain, Bizi Biderekin asko kolaboratzen du, boluntario moduan". Hitzordua da 19:00etan, Kulturaten.

FIBROMIALGIA

## Gaixotasun ezezagun samarra oraindik

Giharren, tendoien, lotailuen eta nerbioen mina da fibromialgia. Pertsona ezgauza bihurtzeko adinako mina izan daiteke. Ez dago proba mediku zehatzik esaten duena pertsonak gaitz hori duela; ondorioz, diagnosi okerrak ere egiten dira. Fibromialgiaren jatorria ezezagun da baina azken ikerketen arabera, nerbio-sistema zentralaren desorekan egon daiteke jatorria eta arazoa genetikoa den ustea ere bada.

**OSPAKIZUNAK** > "CORAZON DE ENCINA" KULTURA ELKARTEA

# Extremadurarren 18. Kultur Astea abian da dagoeneko

Euren kultura herrian ezagutarazteko helburuz, arrasatear oro gonbidatu dute ekimenetara


**MAHAI JOKOAK** Kultur asteko ekitaldi aipagarrienak izan ez arren, ia beti tentsio uneen lekuko dira mahai jokoak J.ARANZABAL

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Arrasateko "Corazon de Encina" Kultur Elkartean ospakizunetan murgilduta daude. Pasa den apirilaren 19tik, herrian bizi diren extremadurarrak kultur astea ospatzen ari dira. Azkar esaten bada ere, dagoeneko 18 urte beteko dituzte kultur jardunaldi hauek eta, urtero bezala, asteburuetara begira antolatu dituzte. Guztira lau asteburu hartuko ditu kultur asteak.

Elkarteko kultur teknikariak, Vicente Del Pozok, orain arte ospatu diren ekitaldiak "aipagarriak eta kontuan hartzekoak" badira ere, ekitaldi "potoloak" heltzear daudela adierazi du. Hala, oraingoz mahai joko ezberdinen kanporaketak soilik jokatu dira, -ondoko argazkian atzoko *Chichon* eta *Cuatrola* partidak ageri dira-.

**EGUN HANDIAK, HELTZEAR**

Del Pozok jakinarazi duenez, "kultur asteko egun handiak maiatzaren 9a eta 10a dira, egun osoan zehar jarduera ezberdinak izango baitira". Hilaren 9an, 19.30etatik aurrera Avilako Cuevas del Valle herritik etorriko den Santos Jimenez poetaren errezitaldia egingo da. Jimenezek bere poema esanguratsuenak errezitatuko ditu ordubete iraungo duen emanaldian. Poesiaz gozatu ostean, sabela betetzeko ordua iritsiko zaie bertaratutakoei. Eguraldia lagun dutela suposatuz, egoitzako terrazan afalduko dute. Francisco Davila "sukaldari ospetsua" izango sahieski jana prestatzeaz arduratuko dena.

Bapo afaldu ondoren, Isabel flamenko kantariak eta El Rubio gitarrajoleak flamenko emanaldia egingo dute, 23:00ean. Eguna amaitzeko, Marsell magoaren ikuskizuna izango da.

Zapatuan helduko da Kultur Astea bere punturik gorenenera. 12:30etatik hasita, patata tortilen lehiaketa eta dagokion dastaketa izango da. Elkarteko bazkideen ordezkaritza osatuko du epaimahaia, gaian adituak diren pertsonak, hortaz. Tortila -eta ardoadastatu ondoren, Juan Sanchez elkarteko lehendakariak agurra egingo du. Hau guztia Extremadurako ardoarekin brindisa egin eta hango produktuak probatu aurretik izango da. Arratsalderako, bestalde, folklore eta musika jaialdia iragarri dute. 18:15etatik aurrera, *Los Chambras*, *Virgen de Guadalupe* eta *Alegria de la Sierra* izango dira elkarteko taula gainean. Kontzertuen ostean eta Del Pozoren hitzetan, euren "afari handia" egingo dute, elkarteko bazkideek antolatzen dutena. Ondoren, erromeria izango da Rex taldearen eskutik.

**HIRIGINTZA** > DOMINGO IRALA KALEA

# Martxa onean doaz Domingo Irala kalea berriztatzeko lanak

Datorren uztailaren 31rako bukatuko dituztela aurreikusi du Udalak

Lur azpiko edukiontziak sartzeko tokia egiten ibili dira langileak azken egun hauetan




**LORATEGIAK** Kale erdian jarriko dituzten lorategien esparruak egin dituzte dagoeneko. ARANTZAZU EZKIBEL

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA
Domingo Irala kaleko lanak martxa onean doaz. Agurne Barruso alkateak esan bezala, hilabete oro egiten dute lanen berrikuspena, proiektua epe barruan doan eta nola doan jakiteko. Berez, uztailaren 31rako bukatu gura ditu Udalak Domingo Iralako lanak, epe hori jarri dio Amaral eraikuntza enpresari, eta orain arteko martxa ikusita, aurreikuspena bete egingo dela uste du.

Gasparreneko kantoitik telefonikako aldapara bitarteko zatia ari dira konpontzen proiektuaren lehen zatian. Adibidez, kalearen erdigunean lorategi batzuk jarriko dituzte, jendea eserita egoteko toki eta guzti eta lorategietako esparruak mugatu dituzte dagoeneko. Azken egunetan, berriz, zaborra biltzeko lur azpiko edukiontziak sartzeko tokia egiten ibili dira langileak. Kalearen lurzoruaren zatirik handiena altxatu dute dagoeneko. Bi motatako galtzadarriak jarriko dituzte gero. Komun publikoak ere egongo dira Domingo Irala kale berrituan.

**KALEA ITXITA AUTOENDAKO**
Bestalde, udaltzainek jakinarazi duten moduan, lanak irauten duten bitartean kalea itxita egongo da ibilgailuendako.

## Hasi dira Pazko jaietako prestaketak egiten

Maiatzaren 9tik 13ra ospatuko dituzte aurten Pazko jaiak eta dagoeneko hasi dituzte prestaketa lanak. Bideberrin, esaterako, eszenategia muntatzen ibili dira egun hauetan. Bestalde, Pazkoetan txosna jartzeko eskaera epea bihar, martitzena, bukatzen da. Zortzi txosna jarriko dituzte gehienez Bideberrin eta bat herriko plazan. Txosna kopurua baino eskaera gehiago badaude, zozketa egingo dute bihar bertan. Baita txosna bakoitzaren kokagunearen adjudikazioa ere.



O.E.

> ERAKUSKETA

### Joxerra Elortzaren margolanak daude ikusgai Aroztegin

Joxerra Elortza artistaren erakusketa zabaldu dute asteburuan Aroztegi erakusketa aretoan. *Den-dena begientzat, ezer ez belarrientzat* du izena erakusketak eta Elortzak egindako hainbat margolan jasotzen ditu.

Erakusketa maiatzaren 18a arte egongo da zabalik eta hauxe da ordutegia: martitzenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; domeketan goizetan egongo da zabalik, 12:00etatik 14:00etara.

> JAIAK

### Labegaraietan eta Elorregin auzoko jaiak egingo dituzte

Elorregi auzoan San Prudentzio jaiak ospatu dituzte asteburuan eta gaur, Prudentzio eguna, meza egingo dute auzoko elizan, 19:00etan.

Bestalde, Labegaraietan maiatzaren 1ean ospatuko dituzte auzoko jaiak. Eguerdian meza izango dute eta ondoren salda eta txorizoa eskainiko dute. Erretiratuen koroak abestuko du meza orduan. Arratsaldean kadete mailako txirrindulari lasterketa egingo dute. Zortzi bergarar joango dira tropelean.

> IKASTAROA

### Sendabelarrei buruzko ikastaroa antolatu dute

Sendabelarri buruzko ikastaroa egingo dute maiatzean. Maiatzeko lau eguenetan, 8,15,22 eta 29, egingo dute. Alberto Altube izango da irakaslea. Ikastaroan parte hartzeko, izena eman behar da apirilaren 27a baino lehen. Kultura etxean apuntatu behar da. Prezioari dagokionez, bergararrek 15 euro ordaindu behar dute eta besteek, 20 euro. Jende askok ematen badu izena, zozketa egingo dute.

((112))
SOS DEIAK

**KIROLA ETA EUSKARA** > 26. EDIZIOA

# Arrasate-Oñati lasterketako izenemate epea zabalik dago

Maiatzaren 8ra arte eman daiteke izena aldez aurretik 7 euro ordainduta; bestalde, proba egunean bertan, maiatzaren 10ean, ere eman daiteke izena, baina, 10 euro ordainduta

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI
Maiatzaren 10ean jokatuko den Arrasate-Oñati lasterketaren 26. edizioan parte hartzeko izenemate epea zabalik dago. Beste urte batzuen antzera, izena bi modutara eman daiteke: aldez aurretik edo lasterketa egunean bertan.

Aldez aurretik izena emateko epea maiatzaren 8an bukatzen da. Korrikalariek 7 euro sartu behar dituzte Euskadiko Kutxako kontuan. Aukera hau erabiltzen dutenek, lasterketa egunean ordain-agiria eroan beharko dute dortsala jasotzeko.

**EGUNEAN BERTAN ERE BAI**
Izena emateko bigarren aukera lasterketa egunean bertan emango zaie korrikalariei. Hain zuzen, Arrasateko Garibai Etorbidean hartuko dituzte izenak 18:15ak arte, eta Oñatiko plazan, 17:00ak arte. Egunean bertan izena ematen dutenek 10 euro ordaindu beharko dituzte. Bestalde, Laixan elkarteko bazkideek, aldez aurretik edo lasterketa egunean izena emateagatik 7 euro ordainduko dituzte.



**RITXAR FERNANDEZ** Iazko irudia helmugara ailegatzen. J.A.

Lasterketa 18:30ean hasiko da Arrasaten, eta korrikalariek 11.700 metro izango dituzte aurretik. Oñatitik Arrasatera joan gura dutenendako autobus zerbitzua egongo da 16:45ean hasita. Lasterketa bukatuta autobusak irtengo dira Arrasate aldera.

Bestalde, nagusien lasterketa aurretik gazteendako probak egingo dituzte. Hain zuzen, benjaminak, alebinak, infantilak eta kadeteak lehiatuko dira Kale Barria eta Atzeko Kaleko ibilbidean.

**LAGUNTZAILEAK BEHAR DITUZTE**
Maiatzaren 10ean jokatuko den lasterketarako laguntzaileak behar ditu Laixanek. Interesatuek izena emate dezakete bulegoan, gaurtik maiatzaren 9ra arte, 18:00etatik 20:00etara.

### Gestio batzordean hiru lagun daude

Apirilaren 12an Laixanek egindako bileran ez zuten zuzendaritza batzordea berritzeko aukera izan. Hortaz, Amaia Bikuñak, Kepa Elortzak eta Jose Luis Fernandez Maurek osatutako gestio batzordea arduratuko da elkarteaz.

**KULTURA**

## Medicos Sin Fronteras taldearen erakusketa

*Crisis olvidadas: vidas ignoradas* erakusketa gaur zabalduko dute

**M.B.** > OÑATI
Medicos Sin Fronteras (MSF) erakundeak antolatutako argazki erakusketa zabalduko dute gaur, kultura etxeko erakusketa gelan. Hain zuzen, *Crisis olvidadas: vidas ignoradas* izenekoa. Erakusketa zabalik egongo da maiatzaren 8ra arte, astelehenetik domekara, 18:30etik 20:30era.

Medicos Sin Fronteras erakundeak osatu duen erakusketaren helburua da, milioika pertsonek bizi dituzten miseriak ezagutzera ematea. Besteak beste, Somalia, Congo, Chechenia eta Kolonbiako gatazkak ikus daitezke argazkien bidez. Hiesa eta Changas bezalako epidemien aurrean kontutan hartu beharreko neurriak zeintzuk diren azaltzen dituzte.

> ZOZKETA

### Kasablankako etxe tasatuen zozketa bihar, 18:00etan

Kasablankako 48 etxebizitza tasatuen zozketa, bihar egingo dute, 18:00etan udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Guztira, 34 eskaera dauden behin betiko zerrendan. Hortaz, biharko zozketarekin eskatzaile bakoitzari zein etxe dagokion erabakiko dute.

**IKASTAROAK**> MAIATZETIK UZTAILERA

# Informatikako zazpi ikastaro emango dituzte uztailera arte

Izena emateko epea, etzi, apirilaren 30ean bukatzen da, Ikas Hiru akademian

**M.B.** > OÑATI
Udalaren Garapen Ekonomikoa, Enplegua eta Merkataritza sailak antolatuta zazpi informatika ikastaro egingo dituzte (ikus ondoko taula). Hain zuzen, Ikas Hiru akademian emango dituzte. Horren harira, maiatzean hasi eta uztailera arte emango dien ikastaroetan parte hartu gura dutenek eguaztena baino lehen eman beharko dute izena Ikas Hiru akademian bertan. Plazak mugatuak dira eta herritar guztiei irekiak daude.

### Ikastaroak, orduak eta prezioak

| IKASTAROA | ORDUA KOPURUA | PREZIOA |
|---|---|---|
| Photoshop oinarrizko ikastaroa | 30 ordu | 60 euro |
| Ofimatika sakontze ikastaroa | 30 ordu | 65 euro |
| Bideo digitaleko pelikulak sortu | 40 ordu | 70 euro |
| Zure ordenagilua babesten ikasi | 8 ordu | 18 euro |
| Zure gauzak nola grabatu | 4 ordu | 8 euro |
| Erosketak Internet bidez | 6 ordu | 12 euro |
| Zer diren eta nola sortu blogak | 6 ordu | 12 euro |

**MOZIOA** > OSOKO BILKURAN

# Gaztetxearen aldeko mozioa ez zuen onartu udalbatzarrak

Oñati Ezkerretik koalizioaren aldeko hiru botoak bakarrik jaso zituen mozioak

**M.B.** > OÑATI
Jendearen arteko erlazioak bultzatzeko, Gazte Batzarrak kudeatuko lukeen "lokal askea" eskatzen zuen mozioa bertan behera geratu zen egueneko osoko bilkuran. Hain zuzen, EAJko eta EAko zinegotzien kontrako botoak jaso zituen; aldiz, Oñati Ezkerretik koalizioko hiru zinegotziek alde bozkatu zuten.

Horren harira, Lurdes Idoiaga alkateak esan zuen, lan taldeko proiektuak garatzeko laguntza emateko gertu daudela, baina "arauak eta erantzukizunak alde batera utzi gabe".

**OÑATI EZKERRETIK ALDE**
Oñati Ezkerretik koalizioko zinegotziek gaztetxearen alde lanean jarraituko dutela esan zuten, eta osoko bilkura aretoan bildu ziren gazteei, Udal arduradunekin biltzeko "beharra" aipatu zieten. EAE-ANVko kideek gaztetxea "beharrezkoa" dela azpimarratu zuten.

**ARETXABALETA** > IRAKURKETA

# Loramendik eta udal euskaltegiak irakurketa bultzatu gura dute

Azken urteotan gehien irakurri diren liburuen izenen zerrenda eta gomendioak dituen diptikoa egin dute; herritarrek parte hartu dezakete ekimenean




**DIPTIKOA** Egunotan Internet bidez eta paperean banatzen diarduten diptikoa. GOIENKARIA

**MIRIAN BITERI** > ARETXABALETA

Loramendi Euskara Elkarteak eta Leintz Udal Euskaltegiak irakurketa bultzatzeko ekimena jarri dute abian. *Atxabaltan be leidu* lelopean, diptiko bat egin dute eta dagoeneko hasi dira horiek banatzen.

Udal euskaltegiko Karmele Agirregabiriak jakinarazi duenez, banaketa gehienbat Internet bidez egin dute. Horren harira, Loramendi elkartearen bazkideei eta euskaltegiaren ikasleei bidali dietela aipatu du. Herriko ikastetxe guztietara ere modu berean bidali dutela gaineratu du. Baina, diptikoa paperean egitea ere ezinbestekotzat ikusi dute antolatzaileek. Hori dela eta, 200 bat diptiko egin dituzte, herriko tabernetan eta toki esanguratsuenetan banatzeko.

Lehenengo aldia da horrelako ekintza bat antolatzen dutela. Agirregabiriak azaldu duenez, normalean antolatzen diren ekimenak umeei zuzenduta daude eta oraingoan "helduendako zerbait egin beharra zegoela" iruditu zitzaien antolatzaileei: "Gauza xumea egin dugu: azken urteotan gehien irakurri diren liburuen zerrenda eta herriko zortzi pertsonek gustuko izan duten liburu baten gomendioa egitea".

Adin guztietako herritarrak aukeratu dituzte horretarako, hala nola, Inaxio Garro alkatea bera; 60 urtetik gorako Txaro Urrutia eta Ana Flores eta Iñaki San Miguel euskaldun berriak.

**PARTE HARTZE PROZESUA**

Diptikoa esku artean izan duen edozein aretxabaletarrak har dezake parte horretan. Interesa duenak gustatu zaion liburuaren gomendioa egin dezake eta Loramendira edo udal euskaltegira eraman behar du.

Gomendio aurkeztera animatzen diren guztien artean, Bergarako Elkar liburu dendan 40 euroko bale bat zozketatuko da. "Ez da kontuan hartuko onena zein den; parte hartzaile guztien artean zozketatuko dugu", azaldu du ekimeneko antolatzaileak. Maiatzaren erdialdera arte dago aurkezteko epea. Zozketaren irabazlearen berri GOIENKARIAn emango dute.

**ESKORIATZA**> OSPAKIZUNAK

# Datorren domekan Atxorrotzeko Eguna egingo dute eskoriatzarrek

Urtero bezala, 09:30ean mendira igotzen hasiko dira eta goian meza izango dute; trikitilariek ez dute huts egingo mendi horren gailurrean

**M.B.** > ESKORIATZA

Badator berriro ere Atxorrotzeko Eguna. Datorren maiatzaren 4an, domeka, ospatuko dute aurten esandako eguna. Urtero bezala, 09:00etan herriko txistulariak kaleak girotzen hasiko dira; eta ordu erdi beranduago, Atxorrotz mendira igotzen hasiko dira animatzen direnak.

Goian meza entzuteko aukera izango du gura duenak, 11:30ean. Hori amaitzean, Sorkunde eta Jon trikitilariak hasiko dira jotzen. Batzuek janaria etxetik prestatuta eramango dute; baina, prestaketa lanetan ibili nahi ez dena, ogitartekoak eta kafea izango ditu eskura, Atxorrotzeko tabernan. Bazkaldu ostean, apurka-apurka menditik jaisten hasiko dira mendizaleak; herrian egingo dira Atxorrotzeko Egunerako antolatutako gainontzeko ekintzak.

**DANTZAK ETA TORTILLAK**

Arratsaldean, euskal dantzek hartuko dute protagonismo osoa herriko plazan. Eskoriatzako Musika Eskolako dantzari taldeen ikuskizunari hasiera emango diote 18:30ean. Ordu berean, herritarrek egindako patata tortillak saltzen hasiko dira. Txistulariek eskainitako erromeria egongo da azkenik.

Egun horren antolatzaile Atxorrotz ONG-ak, Arizmendi Ikastolak eta Eskoriatzako kultur teknikariak tortillak egiteko deialdia egin dute. "Ekintza hau aurrera eramateko eskoriatzar guztien laguntza eskatzen dugu", aipatu dute antolatzaileek.

Egun horretan batzen den dirua Eskoriatzako Atzeratuen Taldeari eta Atxorrotz ONGak dituen proiektua laguntzeko izango da.



**ATXORROTZ EGUNA** Irudian, joan zen urteko Atxorrotx Eguna GOIENKARIA

> ESKORIATZA

### Palestinaren egoeraren gaineko hitzaldia dago gaur

Eskoriatzako Ibarraundi museoan Palestinaren egoerari buruzko hitzaldia entzuteko aukera izango da gaur, astelehena, arratsaldean. *Palestina, 60 urte erresistentzia* izeneko hitzaldia emango du Gorka Quevedo kazetariak eta Komite Internazionalistak taldeko kideak.

Hitzaldia diaporamaz lagunduta joango da. Ekintza 19:30etan hasiko da. Ibarraundi museoak antolatu du.

> ESKORIATZA

### Atxorrotzeko gazteluaz berba egingo dute bihar

Bihar, martitzena, beste hitzaldi eta diaporama izango da Eskoriatzako Ibarraundi museoan. Kasu horretan, Atxorrotz mendiko gaztelua izango da berbagai. Hitzaldiaren izena *Castillo de Atxorrotz: Historia y posible recuperación* da.

Nafarroako Erreinuaren gazteluen ikertzaile Iñaki Sagredo arduratuko da horren gaineko informazioa emateaz. Hitzaldia 19:00etan hasiko da.



**LEHIAKETA** Aramaioko edornork parte hartu ahal izango du horma- irudien lehiaketan. GOIENKARIA.

**ARAMAIO** > JAIAK

# Jaietako horma-irudi lehiaketa abian dago

Maiatzaren 20an amaitzen da horma-irudi lehiaketarako lanak udaletxean aurkezteko epea.

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Hilabete pare bat falta diren arren, Aramaioko Udala jaietara begira ipini da dagoeneko. Jai Batzordea eratu dute eta egin dituzte pare bat bilera. Orain, jaietako horma-irudi lehiaketa deitu du Udalak.

**BALDINTZAK**

Aramaioko edonork hartu dezake parte horma-irudi lehiaketan. Pertsona bakoitzak, gainera, bi lan aurkezteko aukera izango du. Lan guztiak originalak izan behar dira, eta ondorengo testua eroan beharko dute: *San Martin Jaiak. Uztailak 4, 5, 6 eta 7*.

Udaleko Kultura Sailetik azaldu dute lehiaketan bi kategoria bereiztuko dituztela: 16 urtetik beherakoena eta 16 urtetik gorakoena.

Gutunazal baten barruan aurkeztu beharko da horma-irudi bakoitza, eta kanpoan izenburu hau jarri behar zaio: *San Martin Jaietako kartel lehiaketa*. Barruan, gutunazal txiki batean izenburu bera eta egilearen datuak sartu beharko dira (izen-abizenak eta adina). Lanak aurkezteko epea maiatzaren 20an amaitzen da; parte-hartzaileek udaletxean aurkeztu beharko dituzte horma-irudiak. Sariei dagokienean bi kategorietan sari bana emango dute; 16 urtetik beherakoetan 60 euro, Elkar dendetan gastatzeko, eta 16 urtetik gorakoetan 150 euro gauza bera egiteko.

**JAI BATZORDEA**

Aurtengo San Martin jaietara begira eratu den Jai Batzordeak herriko jaiak indartu eta berpiztu nahi ditu. Horretarako zenbait aldaketa egingo dituzte egitarauan. Gainera, urtero antolatzen diren hainbat ekitaldi orduz zein egunez ere aldatzea da euren asmoa.

Guzti hori lortzeko, baina, herritarren parte-hartzea ezinbestekoa dela uste du Jai Batzordeak. Hori horrela, egiten dituzten bileretara joateko eskatu diete herritarrei.

**LEINTZ GATZAGA** > ARGINDARRA

## Transformagailua berritu behar du Udalak argindarra banatzen jarraitzeko herrian

Udalarena den Leintzargi SL enpresak banatzen du argindarra herrian, baina jarraitu edo ez hausnartu gura du

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Apirilaren 10ean egindako osoko bilkuran 2008ko udal aurrekontua onartu zuen udalbatzak, eta harekin batera Leintzargi SL enpresari dagokiona. Hilabeteko epean egongo dira ikusgai, eta erreklamaziorik aurkeztu ezean behin betiko onartuko dituzte.

Gatzagako Udalak argindarra erosten dio Iberdrolari Leintzargi enpresaren bitartez, eta ondoren herritarrei banatzen die. Ez da batere ohikoa, eta Gipuzkoan beste bi herritan bakarrik egiten dutela azaldu digu Eusebio Villar alkateak, Oñatin eta Tolosan: "Baina badago ezberdintasun bat: bi kasu horietan herrian bertan sortzen dute argindarra. Guk ez daukagu halakorik egiteko modurik, eta erosi egiten diogu Iberdrolari", dio.

**DIRUTZA HANDIA**

Madrileko Industria Sailetik jakinarazi diote herrian dagoen transformagailua aldatu beharko dutela. Banatzaileei zorrotz egiten dietela jarraipena azaldu du alkateak, eta gaiaren inguruko hausnarketa egin beharko dutela gaineratu du: "Sortu barik banatzea kezkagarria da, eta lan handia ere bai. Herritarrendako erosoa da, baina merezi duen edo ez hausnartu behar dugu". Onartu zuen, gainera, transformadorea aldatzea dirutza handia dela Udalarendako, eta mailegua eskatu beharko dutela.

**ANTZUOLA** > MENDEKOTASUNA

## Ikastaroa, adineko ezinduak zaintzen dituztenendako

Maiatzaren 19tik 23ra bitartean izango dira saioak Olaran etxean arratsaldetan

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Sendian programaren bitartez mendekotasuna duten adineko pertsonak zaintzen dituzten familiendako prestakuntza ikastaroa antolatu du Udalak. *Zure nagusiak maite dituzunez hobeto zaintzen ikasi* lelopean, Maiatzaren 19tik 23ra bitartean izango dira hitzaldiak Olaranen 15:00etatik 17:00etara.

Ikastaroen helburua da adineko mendeko pertsonak zaintzen dituztenei laguntza eta prestakuntza eskaintzea, egiten duten lana modu egokian egiteko. Medikuntza, psikologia, lege eta gizarte arloetako gaiak eta laguntza teknikoei buruzkoak landuko dituzte eta gai bakoitzean adituek emango dituzte hitzaldiak.

Mendeko pertsonen arazoak, komunikazio eta erlaxazio teknikak, baliabide sozialak, osasun eta erizaintza laguntza teknikoak eta ikuspegi legal eta etikoak dira berbetarako aukeratu dituzten gaiak.

**IZENEMATEA ZABALIK**

Ikastaroan parte hartu nahi dutenek izena emateko eta hitzaldien gaineko informazio gehiago jasotzeko Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo beharko dute maiatzaren 12a baino lehen. Ikastaroa doanekoa izango da eta adinekoen zaintzaz arduratzen direnenei joateko gonbitea egin nahi diete

### Ikastaroak egunez egun

**Maiatzak 19**
*Mendeko pertsonen arazoak.*
Hizlaria: Anbulatorioko medikua.

**Maiatzak 20**
*Komunikazio eta erlaxazio teknikak.*
Hizlaria: Oscar Mondragon, psikologoa.

**Maiatzak 21**
*Inguruko euskarri diren baliabide sozialak.*
Hizlaria: Karmele Korta, Gizarte laguntzailea.

**Maiatzak 22**
*Osasun, erizaintza eta laguntza teknikoak.*
Hizlaria: Icavi Bikain Laguntza Teknikoak.

**Maiatzak 23**
*Ikuspegi legal eta etikoak.*
Hizlaria: Hurkoa Fundazioa.

**ELGETA** > IKASTAROA

## Izenematea zabalik lehenengo sorospenenen gaineko ikastarorako

Maiatzaren 27an hasiko den ikastaroan kirolean elikadura, hidratazioa eta bendaje funtzionalak izango dituzte hizpide

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Jarduera fisikoan eta kirolean, batzuetan, ezusteak gertatzen dira eta horrelakoetan komenigarria da nola jokatu jakitea. Elgetako Udalak kirola edo jarduera fisikoa ardatz duten ekintzetan gerta daitezkeen egoera ezberdinen aurrean kontuan hartu beharreko aholkuak jasoko dituen ikastaroa antolatu du. Lehenengo sorospen edo laguntza nola eman aztergai izango duen 10 orduko ikastaroa izango da eta maiatzaren 27an emango diote hasiera.

**OINARRIZKO IKASTAROA**

Kirol praktikan gehien ematen diren lesioen identifikazioa egingo dute lehenik eta behin ikastaroan. Haurren artean ohikoak diren lesioak izango dituzte aztergai baita traumatismo mota arruntenak ere; lokarriak, giharrak, tendoiak... Elikadura eta hidratazioa ere hizpide izango dituzte. Azkenik, hesgailu funtzionalak nola egin eta larrialdietan nola jokatu aztertuko dute.

Ikastaroan parte hartzeko izenematea zabalik dago maiatzaren 15era arte. Saioak maiatzaren 27tik ekainaren 5era arte egingo dira martitzen eta eguenetan, 19:00etatik 21:00etara kultura etxean.

Prezioa 40 euro da. Udaletik jakinarazi dute gutxieneko partaide kopurua ipini dutela ikastaroa martxan jartzeko. Taldea osatzeko gutxienez zortzi lagun beharko dira.

# Kirola



**> FUTBOLA** Antzuolak irabazi zuen Bergararen kontrako derbia, Agorrosinen > 18



**> SASKIBALOIA** Iruñan irabazita gero eta gertuago dauka igoera MU taldeak > 19

**> AGUSTIN ARANTZABAL** Realeko kapitain ohia omendu zuten zapatuan bere jaioterrian, Bergaran. Iazkoa izan zuen azken denboraldia lehen mailan, Zaragoza taldean > 20





**ERASOAN** Argazkian, Aloñako jokalari Olatz Manuel Bera Bera taldeko defentsarekin lehian, egubakoitzeko partiduan. JOSETXO ARANZABAL

**ESKUBALOIA** > VERKOL ALOÑA

# "Kopako partiduetan jarrera oso ona erakutsi dugu orain arte"

**KOPA**

Maiatzaren 24an bukatuko du Verkol Aloñak kopa txapelketa

**ENTRENATZAILEA**

Irailean hasiko den denboraldian entrenatzaile berria izango du taldeak

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Liga txapelketa bukatuta, kopan dihardu Aloña Mendiko senior mailako emakumezkoen taldeak. Aste bukaeran jardunaldi bikoitza jokatu dute: egubakoitzean, 32-22 irabazi zuten Bera Beraren aurka Oñatin, eta zapatuan, 26-22 galdu zuten Zarautzen. Taldeko entrenatzaile Maitane Ruizek esan digu joko oso ona egin dutela kopako hiru partiduetan: "Taldeak erakutsi zuen jarrera ezin hobea izan da. Aste bukaeran ere, bi partidu jokatu arren, fisikoki sasoi onean daudela erakutsi dute. Ni ere harrituta nago kopan egiten ari garen jokoarekin".

Maiatzaren 31n bukatuko da kopa txapelketa, baina Verkol Aloñak atsedena du azken jardunaldian."Hurrengo partidua San Migel Txiki jaietan jokatuko dugu Ereintzaren aurka; gero, Leizaranen bisita jasoko dugu Zubikoan, eta txapelketa, Elgoibarren bukatuko dugu". Kopa txapelketa helburu zehatz barik hasi zuten, baina orain arteko lana ikusita, txapelketa irabazteko aukera ez dute baztertzen. Era berean, gazte mailako bigarren urteko jokalariak ikusteko aprobetxatuko dituzte lehiak. "Bigarren urteko hiru jokalari ditugu bakarrik, eta bat lesionatuta dago. Baina, orain arteko partiduetan gurekin egon dira", azaldu zigun Maitane Ruizek.

## "Oraindik ez dakigu maila galduko dugun"

Euskadiko Txapelketako A mailan jokatu du liga txapelketa Verkol Aloñak, eta atzeko postuetatik hirugarren tokian bukatu dute, Ereintzaren eta Elorrioren aurretik. Bi talde horiek maila galdu dute, baina Aloñako neskek ez dakite non jokatuko duten irailetik aurrera. "Oraindik ez dakigu maila galduko dugun. Izan ere, lehen nazional mailako multzoan talde bakoitiak daude, hortaz, talde bakarra jaitsiko da. Gainera, goiko mailetatik zenbat euskal talde jaisten diren ikusi beharko da. Guzti horrek esango digu datorren denboraldian zein mailatan jokatuko dugun", azaldu digu Maitane Ruizek. Esan digu baita ere, ez dakitela noizko jakingo duten erabakia, "behar bada, kopa txapelketa bukatu arte ez dugu ezer jakingo".

**ENTRENATZAILE BERRIA**

Irailean hasitako denboraldia bukatu ez den arren, dagoeneko hasi dira hurrengo urteari begira. Aloña Mendi eskubaloi saileko zuzendaritzak badaki Maitane Ruizek ez duela taldean jarraituko. "Kopa txapelketa bukatzen denean taldea utziko dut. Pena ematen dit, baina erabakia hartuta daukat. Orain, entrenatzaile berria topatzeko lanean gabiltza buru belarri". Orain arte jokalaria izan den Ainhoa Unamunok entrenatzaile titulua du, eta bere burua eskaini du. "Aukera bat izan daiteke, baina Ainhoak taldea zuzenduko balu ezingo luke jokatu, eta taldearendako jokalari inportantea da. Hortaz, beste aukera batzuk aztertuko ditugu lehendabizi". Jokalari gehienek esan dute, irailean, taldean jarraituko dutela.

**PREFERENTE MAILA** > AZKOGAINEN

# Maila mantentzeko garaipen garrantzitsua Aloñarendako

**ALOÑA MENDI**

## 1-0

**EIBARTARRAK**

**Aloña Mendi** > iñigo, Sanchez, Iker, Julen, Xabi, Elgarresta (Aramendi), Axier, Mikel, Camino, Roberto (Jon), eta Unai (Iñigo).

**Eibartarrak** > Iraola, Peña. Alberdi, Sarasola. Varela, Artetxe, Enrike, Mutilba, Azpiazu, Fran eta Lastra..

**Epailea** > Roman jaunak zuzendu zuen Azkoagaineko partidua. Laguntzaileak izan ziren Sarmiento eta Fabregatu jaunak

**Bestelakoak** > Jende asko bildu zen futbol zelaian.



**BORROKA** Argazkian, Roberto Idigoras baloiaren jabetza lortzeko lehian Eibartarrak taldeko jokalariarekin. JOSETXO ARANTZABAL

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

"Hasi aurretik bagenekien puntuak garrantzitsuak zirela, irabazi ezean, gainerako emaitzak ikusita, jaitsiera postuetara hurbiltzeko arriskua genuen-eta". Aloñako jokalari Roberto Idigorasen hitzak irakurrita, jakina da zein garrantzitsua zen atzoko partidua oñatiarrendako. Era berean, sailkapeneko zulotik irteteko ahaleginean, puntuak oso inportanteak ziren Eibartarrak taldearendako.

Horregatik guztiagatik, partidu borrokatua jokatu zuten bi taldeek Azkoagainen, helburu bakarrarekin, alegia, hiru puntuak lortzea.

**GOLAREKIN, LASAITASUNA**

Lehenengo zatia nahiko eskasa izan zen joko aldetik. Gol aukera garbiak izan barik Eibarreko taldeak asko estutu zuen Aloñaren arean. Josu Zubiaren taldeari kosta egin zitzaion baloiaren jabetza izatea, eta apenas izan zuen gola egiteko aukerarik.

Aldageletatik itzuli ondoren, beste itxura bat eman zuen Aloña Mendik. "Bigarren zatiaren laugarren minutuan Axier Ugartek egin duen golak beste itxura bat eman dio taldeari. Lasaitu egin gara, eta askoz hobeto jokatu dugu", esan zigun Roberto Idigorasek.

Markagailuan atzetik zegoela, Eibartarrak taldeak lerroak zabaldu zituen berdinketaren bila joateko asmoz. Hala, oñatiarrek gol aukerak sortu zituzten, besteak beste, Xabi Caminok zutoinaren ondotik kanpora bota zuen jaurtiketa, eta Jon Astigarragak, lehia bukatzear zegoela izan zuen aukera. Baina, etxekoek ez zuten asmatu, eta bukaeran urduritasuna nagusitu zen Azkoagainen, epaileak bost minutu luzatu zuen-eta partidua.

Bukaeran, pozik ospatu zuten garaipena etxeko jokalariek eta zaleek. Atzoko puntuekin, Aloñak 35 ditu sailkapenean, eta 11. tokian dago. Liga bukatzeko lau jardunaldi geratzen zaizkio Zubiaren taldeari: Trintxerperen eta Touringen aurka Azkoagainen, eta Hernaniren eta Mondraren aurka kanpoan.

**PREFERENTE MAILA** > ANAITASUNAREN AURKA

# UDAk galdu egin zuen, berdintzeko aukerak izan arren

Epaileak Aretxabaletako jokalari bat eta entrenatzailea egotzi zituen Anaitasunaren aurkako lehian

**M.B.** > ARETXABALETA

"Emaitzarik justuena berdinketa litzateke, baina galdu egin dugu". Horrela laburtu zigun taldeko delegatu Jabier Etxeberriak Anaitasunak eta UDAk, zapatuan jokatutako partidua (1-0).

Anaitasunak izan zuen lehen gol aukera partidua hasi eta berehala, baloia langara bota zuteneta. Lehenengo zatian Igor Arenazaren taldeak ere gola egiteko aukerak izan zituen, baina atsedenera gol barik heldu ziren.

**ANAITASUNA AURRETIK**

Bigarren zatian partiduak bide berdinetik jarraitu zuen: alegia, jokoa parekatua izan zen. Baina, Euskaldunarendako gola egin zuen Jon Ugaldek 75. minutuan. Handik aurrera, aretxabaletarrak saiatu ziren berdinketaren gola egiten, eta Erikok burukada garbia izan zuen horretarako. Bestalde, epaileak UDAko jokalari Orueta eta entrenatzaile Arenaza egotzi zituen.

30. jardunaldiaren ondoren, UDA bosgarren da sailkapenean 47 punturekin.

**PREFERENTE MAILA** > ONDARTZA FUTBOL ZELAIAN

# Bigarren zatian gaizki jokatu arren, puntu bat Mondrak

Igor Gordobilen taldeak bi zati ezberdin jokatu zituen Hondarribiaren aurkako lehian

**M.B.** > ARRASATE

Mondrak bi aurpegi erakutsi zituen zapatuan Hondarribiaren aurkako norgehiagokan: lehenengo zatian joko ona egin zuen, eta bigarrenean partidua galtzeko arriskua izan zuen. Partidu amaieran baina, berdinketa izan zen nagusi Ondartza futbol zelaian: 1-1.

**MURUAK EGIN ZUEN GOLA**

Esan bezala, joko ona egin zuen Mondrak lehenengo zatian. Ondorioz, markagailuan aurreratu zen Jon Muruak egindako golari esker. Baina, bigarren zatian, Hondarribiak menderatu zuen zelai erdia, eta berdinketaren gola egin zuen. "Atsedenean, partidua irabazteko gai izango ginela uste nuen, baina, aldageletatik lokartuta irten gara eta oso gaizki jokatu dugu bigarren zatian", esan zigun Mondrako entrenatzaile Igor Gordobilek. Lehia berdinduta zegoela, Hondarribiak hiru puntuak eskuratzeko aukera garbiak izan zituen, baina, amaieran puntuak banatu zituzten bi taldeek.

## emaitzak eta sailkapenak

### PREFERENTE MAILA

**Sailkapena**

| | Puntuak | JP |
|---|---|---|
| 1. **Ordizia** | **61** | 30 |
| 2. **Real Union** | **60** | 30 |
| 3. **Trintxerpe** | **58** | 30 |
| 4. **Berio** | **58** | 30 |
| 5. **UDA** | **47** | 30 |
| 6. **Aurrera** | **45** | 30 |
| 7. **Mondra** | **43** | 30 |
| 8. **Euskalduna** | **42** | 30 |
| 9. **Hernani** | **39** | 30 |
| 10. **Hondarribia** | **37** | 30 |
| 11. **Aloña Mendi** | **35** | 30 |
| 12. **Idiazabal** | **35** | 30 |
| 13. **Zumaiako** | **33** | 30 |
| 14. **Anaitasuna** | **33** | 30 |
| 15. **Anaitasuna** | **30** | 30 |
| 16. **Zestoa** | **28** | 30 |
| 17. **Eibartarrak** | **25** | 30 |
| 18. **Touring** | **22** | 30 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Idiazabal-Zumaiako | 1-1 |
| Zestoa-Anaitasuna | 0-2 |
| Aloña Mendi-Eibartarrak | 1-0 |
| Vasconia-Hernani | 1-2 |
| Real Union-Trintxerpe | 0-1 |
| Hondarribia-Mondra | 1-1 |
| Berio-Touring | 2-0 |
| Ordizia-Aurrera Ondarroa | 2-0 |
| Euskalduna-UDA | 1-0 |

**Hurrengoak**

Anaitasuna-Idiazabal
Eibartarrak-Zestoa
Hernani-Aloña Mendi
Trintxerpe-Vasconia
Mondra-Real Union
Touring-Hondarribia
Aurrera-Berio
UDA-Ordizia
Zumaiako-Euskalduna

### BESTELAKOAK

**LEHENENGO ERREGIONALA**

| | |
|---|---|
| Bergara-Antzuola | 0-1 |

**BIGARREN ERREGIONALA, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Ostadar-UDA | 3-1 |
| Mondra-BTLS- | 0-0 |

**BIGARREN ERREGIONALA, KOPA**

| | |
|---|---|
| Elgeta-Ikasberri | 3-0 |

**OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Ordizia-Bergara | 0-1 |
| Zumaiako-Aretxabaleta | 2-1 |

**OHOREZKO GAZTEAK, KOPA**

| | |
|---|---|
| Burumendi-Mondra | 5-2 |
| Aloña Mendi-Euskalduna | 2-0 |

**LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK, IGOERA FASEA**

| | |
|---|---|
| Oiartzun-Aretx.Arizmendi B | 3-1 |

**LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK, KOPA**

| | |
|---|---|
| Bergara-Soraluze | 4-0 |

**OHOREZKO KADETEAK, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Tolosa-Aloña Mendi | 4-1 |
| Bergara-Zumaiako | 3-2 |

**LEHENENGO MAILAKO KADETEAK, IGOERA FASEA**

| | |
|---|---|
| Arrasate-Ekintza | 6-0 |
| UDA B-Behobia | 1-0 |

**LEHENENGO MAILAKO KADETEAK, KOPA**

| | |
|---|---|
| Soraluze-Bergara B | 3-1 |

**EMAKUMEZKOAK, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Anaitasuna-BTLS | 0-6 |

**EMAKUMEZKOAK, KOPA**

| | |
|---|---|
| Arizmendi-Arizmendi B | 1-2 |

**BIGARREN ERREGIONALA** > DERBIA, MOJATEGIN

# Igoerako lehian jarraitzeko puntu bana bi taldeendako

Mojategiko derbiaren ondoren BTLS bigarrena da sailkapenean, eta Mondra hirugarrena

Bigarren erregional mailako sailkapena estutu egin da, Kostkas liderrak galdu ondoren

MONDRA
**0-0**
BTLS

**Mondra** > Galan, Irazabal, Zabaleta (Ibarrondo, 88. min.), Etxagabel, Lakuntza, Jurado, Pavo (Sanchez, 81. min.), Ocon, Ballesteros (Arregi, 70. min.), Corcuera eta Bolinaga.

**BTLS** > Martin, Arbulu, gallastegi, Berraondo (Dovao, 71. min.), Muguruza, Abajo, Sanchez, Irizar, Bolinaga, Orgaz (Macho, 77. min.), eta Arejolaleiba (Igartua, 81. min.).

**Epailea** > Barrere jaunak zuzendu zuen Mojategin jokatutako derbia.

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

Mojategin jokatu zen derbia gol barik bukatu zen. Lehenengo erregional mailara igotzeko lehian partidu garrantzitsua zen zapatukoa, eta jokoan antzeman zen. Bi taldeek hainbat aukera izan zituzten gola egiteko, baina guztietan huts egin zuten. "Partidua oso parekatu eta gogorra izan da. Bi taldeek aukerak sortu ditugu, hortaz, emaitza justua izan zela esan beharra dago", esan zigun BTLS taldeko arduradun Jose Luis Beitiak. Gainera, zapatuko beroak ez zuen asko lagundu, eta partidua oso nekatuta bukatu zuten jokalariek.

**LIDERRAK GALDU**

Puntu bat sari gutxi izango zela zirudienean, igoera faseko liderra den Kostkas taldeak galdu egin zuela jakin zuten bi taldeek. Horregatik guztiagatik, sailkapena asko estutu da: Kostkasek 23 puntu ditu, BTLSek 21, eta Mondrak 20 puntu. Orain, igoera fasea bukatzeko lau jardunaldi falta dira (ikus ondoko taula).



BORROKATUA Derbia gogorra eta parekatua izan zen argazkiak erakusten duen moduan. JOSETXO ARANZABAL

## Igoera fasea bukatzeko geratzen diren partiduak

| | MONDRA | BTLS | KOSTKAS |
|---|---|---|---|
| Maiatzak 3 | Dunboa- Mondra | BTLS-Landetxa | Kostkas-Amaroz |
| Maiatzak 10 | Mondra-Amaroz | Union Txiki-BTLS | Getaria-Kostkas |
| Maiatzak 17 | Mondra-Kostkas | BTLS-Getaria | Mondra-Kostkas |
| Maiatzak 24 | Landetxa-Mondra | Kostkas-BTLS | Kostkas-BTLS |



**LEHEN ERREGIONALA** > DERBIA, ANTZUOLARENTZAT

# Antzuolak etxekoen ilusioak zapuztu

Zapatuko garaipenaren ostean, bigarren postua eskuratzeko lehiari eusten diote antzuolarrek

BERGARA
**0-1**
ANTZUOLA

**Bergara** > Soto, Agirrezabal, Garitano, Elorriaga (Agirre, 55. min.), Oregi (Ibañez, 75. min.), Nafarrete, Loiola, Ilzarbe (Eloy Crespo, 63. min.), Cabanillas, Otero eta Balzategi (Martinez, 60. min.). Urteagak Martinez ordezkatu zuen 83. minutuan.

**Antzuola** > Azkarate, Iparragirre, Franco, Guridi, Agirre, Berraondo, Zubikarai, Aitor Godoy, Azkarate (Idiakez, 70. min.), Cabrera eta Jon Godoy (Arbulu, 83. min.).

**Bestelakoak** > Ohi baino jende gehiago Agorrosinen. 600 lagun inguru. Partiduaren atarian Bergara KEk Jose Mari Albisua, Andres Alzelai eta Agustin Aranzabal omendu zituen. Gipuzkoako txapelketa irabazi duten kadete mailako neskak ere atera ziren zelaira, jendearen txaloen artean. Besteak beste, Agurne Barruso Bergarako alkatea, Juan Luis Larrea Gipuzkoako Federazioko presidentea eta Fernando Antunez Realeko zuzendaritzako kidea izan ziren Agorrosinen. Bero handia Guadix epaileak bederatzi txartel hori atera zituen, tartean Azkargorta Antzuolako entrenatzaileari.

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

"Nork esango zidan Bergarak Antzuolaren kontrako derbia jokatuko lukeela inoiz? Gure garaian Eibar edo Mondragonen aurka jokatzen genuen..." zioen zapatuan omendutako Andres Alzelaik partidua hastear zela. Ba antzuolarrak etorri behar izan ziren mahoneroen bolada moztera, eta igoerarako ilusioak zapuztera. Lehen itzulian gertatu bezala, Andoni Azkargortaren mutilek eskuratu zituzten hiru puntuak. Bergarak partidu benetan eskasa egin zuen, "denboraldiko txarrena" Manu Diaz entrenatzailearen hitzetan.

**JOKO GUTXI**

Derbietan gertatzen den bezala, joko gutxi, tentsioa eta nerbioak izan ziren nagusi Agorrosinen. Etxekoek ez zuten arrisku handirik sortu 90 minutuetan eta Antzuolak beharbada sari handiegia eraman zuten egindako merituengatik. Husnako berdinketarekin amaitu zitekeen partidua, eta zoritxarreko (eta zorionekoa bisitarientzat) jokaldi batek erabaki zuen partidua. Oregik sartu zuen gol bakarra bere atean, Zubikaraik egindako erdiraketa baten ondorioz. Baloiak ezustean harrapatu zuen Soto Bergarako atezaina. Partidua amaitzeko 20 minutu geratzen ziren, baina etxekoak ez ziren gauza izan partidua berdintzeko. Antzuolarrak eroso ziren orduko, atzean sartuta, eta kontraerasoak eginez. Zubikaraik bikain gidatu zuen bere taldea zelai erditik. Cabanillasek izan zuen aukerarik onenetako, baina buruz egindako errematea Berraondok desbideratu zuen, area txikiak. Antzuolako zaleek ondo ospatu zuten garaipena. Ziurrenik hurrengo denboraldian ere derbia Antzuolaren aurka jokatuko du Bergarak.



**OMENALDIA** Agustin Arantzabal, Andres Alzelai eta Jose Mari Albisua omendu zituzten partiduaren atarian. JOSETXO ARANTZABAL




**ZELAI ERDIAN** Partiduko zatirik handiena zelai erdian jokatu zen. Gol aukera gutxi izan ziren zapatuan Agorrosinen. J.A.

## PROTAGONISTEN IRITZIAK



**Manu Diaz**
Bergarako entrenatzailea

Oso partidu txarra egin dugu. Horrelakoak tokatzen dira noizean behin. Badira ezer ateratzen ez zaizun egun beltzak eta gaurkoa horietako bat izan da. Ez dugu asmatu jokoa sortzen eta ez dugu apenas gol aukerarik eduki. Oraindik ere bigarren postua eskuratzeko borrokan jarraitzen dugu, baina edozein modutan denboraldiko helburua bete dugu, erregionaleko talde gazteenetakoa daukagu eta.



**Andoni Azkargorta**
Antzuolako entrenatzailea

Guretzat garaipen garrantzitsua da, ez aurkaria Bergara delako, baizik eta azken jardunaldietan ez dugulako eman irudirik onena. Gaur, berriz, hiru puntuak eskuratu ditugu eta sailkapeneko goiko taldeekin engantxatzeko ahaleginetan jarraitzen dugu. Hiru puntu hauek oso garrantzitsuak dira guretako. Gutxitan izaten dugu horrelako zelai baten jokatzeko aukera eta partidua berezia zen jokalari askorentzat.



**Iñaki Agirre**
Antzuolako jokalaria

Jende asko etorri da Antzuolatik partidua ikustera eta beti ere pozgarria da zaleekin batera horrelako garaipen bat ospatzea. Emaitza justuena berdinketa izango litzateke agian baina zortea aldeko izan dugu gaur. Beroarekin ez zen erreza jokatzea gaur, eta derbietan zaila izaten da joko ona ikustea. Bi partidu besterik ez dira geratzen eta ea liga amaiera txukuna egiten dugun.

**SASKIBALOIA** > EBA LIGARAKO IGOERA FASEA

# Igoera, garaipen bakar batera du MUK

Etxean jokatu dituzte azken hiru partiduak eta garaipen bat nahiko zaie EBA ligara igotzeko

Ia partidu osoan markagailuan atzetik joan ondoren, Iruñean irabazi zuen zapatuan MUk

UPNA
**67-68**
MONDRAGON UNIBERTSITATEA

**EDU MENDIBIL** > BERGARA
Zapatuan Iruñean irabazi ondoren, hiru aukera izango ditu MUk igoera lortzeko. Datozen hiru partiduak etxean jokatuko dituzte arrasatearrek eta garaipen bat nahikoa zaie EBA ligara igoera eskuratzeko. Lehenbiziko *matchpointa* domekan izango dute, 18:00etan, Urdanetaren aurka.

Hainbat bajarekin joan ziren arrasatearrak zapatuan Iruñara. Jokatzeko moduan zortzi jokalari baino ez zituen Iñaki Merino entrenatzaileak. Horien artean, belaunetik minduta dagoen Alartzia. MUko antolatzaileak ez zuen huts egiterik nahi eta maila ona azaldu zuen, %100ean egon ez arren. Dena dela, esperientzia erabakigarria izaten da zapatuko moduko partiduetan.

**ERREAKZIOA, AZKEN ZATIAN**
Nafarrek ezustean harrapatu zituzten arrasatearrak eta 8. minutuan 10 puntuko aldea zeukaten markagailuan (16-6). Defentsan txarto ibili ez ziren arren, ohi baino gehiago huts egin zuten arrasatearrak jaurtiketetan. Erasoko jokaldietan trabatu egiten ziren Merinoren mutilak. Hala ere, UPNAk ez zuen alde handiegirik lortu atsedenaldian (34-26).

Hirugarren laurdenean MUkoek ondo eutsi zieten etxekoei eta laugarren laurdenean erreakzioa etorri zen. Egindako 15 puntuetatik 13 laugarren laurdenean egin zituen Kintanak. Biainek ere lan txukuna egin zuen. Segundo baten faltan, hirukoa egin eta puntu bakar batera jarri ziren etxekoak. Baina beranduegi zen ordurako.



**GARAIPEN BAT** Domekan Arrasaten irabazten badute, matematikoki EBA ligara igoko dira MUkoak. GOIENKARIA



JOSETXO ARANTZABAL

## Bergarako Ariznoa taldeko gimnastak Euskadiko txapelketan izango dira maiatzaren 31n

Bergarako gimnasia erritmikoko Ariznoa elkarteko lau kategoria Euskadiko txapelketan egongo dira maiatzaren 31n, Donostian. Hain zuzen, infantil, kadete, alebin eta gazte mailako A kategoriako taldeak. Eskola arteko A mailako Gipuzkoako txapelketa jokatu zuten zapatuan Labegaraietako kiroldegian, eta hantxe eskuratu zuten bergararrek Euskadiko txapelketara joateko txartela. Taldekako emaitzak onak izan ziren eta baita banakakoak ere. Adibidez, Kristina Etxeberria, Uxue Lazkano, Onintza Legorburu eta Ainhize Lizarralde ere Euskadiko txapelketan lehiatuko dira bakoitza bere mailan. Bestalde, B mailako Gipuzkoako txapelketa maiatzaren 16an izango da Zarautzen.

> SASKIBALOIA

### Defentsa onari esker irabazi dio Aloña Mendik Aldapetari

Puntu bakar bategatik (56-55) irabazi dio Aloña Mendik Donostiako Aldapetari, Gipuzkoako seniorren kategorian. Eneko Blancok egin zituen etxeko taldearen entrenatzaile lanak eta "defentsa ona egitea" izan da gakoa bere esanetan. "Bakarkako defentsa egin ordez, defentsa orokorra egin dugu, eta asmatu dugu", dio.



Zubikoa kiroldegian, zapatuan. J.A.

> SASKIBALOIA

### Candy Bergarak 19 puntugatik galdu zuen Errotaundin aurka

Candy Bergarak 19 puntugatik galdu zuen Azpeitiko Errotaundi taldearen aurka, Gipuzkoako seniorren mailan. Bergarako taldea joan den astean jaitsi zen mailaz eta Azpeitikoak, berriz, hurrengo mailara igotzeko final erdietan daude orain. Bi partidu gelditzen dira denboraldia bukatzeko.



Partiduko une bat. J.A.

Agustin Arantzabalek, Gazteluren semeak, Realean jokatu zuen txikitatik. 1993ko martxoan egin zuen debuta Realarekin, Riazor futbol zelaian, Deportivoren aurka (5-1), Toshacken aginduetara. Ordutik 2004an Reala utzi zuen arte makina bat partidu jokatu zuen txuri-urdiekin. Iaz futbola uztea erabaki zuen, azken bi denboraldiak Zaragozan jokatu ondoren.

**Agustin Arantzabal** > Realeko eta Zaragozako jokalari ohia

# "Realak lehen mailan egon behar du; zaila dago baina ea aurten igotzen den..."

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

**Ibilbide luzea egin du Agustin Arantzabalek (Bergara, 1973) futbolean. Realean, Zaragozan, Euskadiko selekzioan eta Espainiako selekzioan jokatu du. Frantziako Mundialean eta Holanda eta Belgikako Eurokopan hartu zuen parte. Iazko denboraldiaren amaieran futbola uztea erabaki zuen, azken bi urteak Zaragozan, isilean, eman ondoren. Realeko kapitain ohiak Bergara KEren omenaldia jaso zuen zapatuan. Harekin izan ginen partiduaren atarian.**



Agustin Arantzabal zapatuan Agorrosinen, Bergara-Antzuola partiduaren atarian omenaldia jaso aurretik. JOSETXO ARANTZABAL

**Mutikotan, alebin mailan, Bergara KEn jokatu zenuen eta orain taldearen omenaldia jaso duzu. Zuri esker taldeak jasotako dirua eskertu nahi izan dizute...**

Beti da pozgarria etxeko taldearen partetik omenaldia jasotzea. Iazko ekainean futbola utzi eta gero berriro gaude Donostian bueltan eta omenaldi hau jasotzeko aukera komentatu zidatenean, pozez hartu nuen. Gustura etorri naiz Bergarara, omenaldiz gozatzera eta, bide batez, aspaldiko lagunak agurtzera. Eskertzekoa da nirekin izan duten detailea eta Realarekin debutatu edo Zaragozarekin fitxatu nuenean, taldeak dirua jaso bazuen, askoz hobe. Harrobia zaintzeko eta beste hainbat proiektu laguntzeko ez zen diru hori gaizki etorriko...

**Zaila gertatu zitzaizun futbola uzteko erabakia hartzea?**

Egia esateko, nahiko argi neukan. Azken bi denboraldietan ez dut askorik jokatu Zaragozan eta banekien ordu hau laster iritsiko zela... Joan zen denboraldia aurrera zihoala, azkena izango zela erabaki nuen. Futbol jokalari moduan nire etapa bukatu da, eta baneukan beste etapa bati ekiteko gogoa, etxekoekin denbora gehiago izateko ere bai... Alde horretatik ez zait batere traumatikoa gertatu futbola uztea. Ez dut faltan botatzen. Urte asko izan dira eta gustura nago egindako ibilbidearekin.

**Zuk esan bezala, Zaragozan gutxi jokatu duzu eta Realean eman zenituen urterik onenak? Badago nabarmenduko zenukeen momentu bereziren bat Realean? Eta momentu txarrik?**

Futbolak pozak eta atsekaberen bat edo beste eman dit, baina orokorrean asko disfrutatu dut futbolarekin. Ez nuke momentu hau edo beste hura nabarmenduko. Futbolari esker ezagututako lagunekin geratzen naiz. Hori da gauzarik ederrena. Eta zortekoa izan naizela uste dut, mutikotatik Realean, nire betiko taldean jokatu dudalako. Momentu txarrak ere egon dira tartean, noski. Baina nahiago dut gauza onenekin akordatu eta besteak albo batera laga. Gauza on asko eman dizkit futbolak.

**Bere garaian, komentatu zen zenbait talde handik zu fitxatzeko interesa azaldu zutela. Damutzen zara eskaintzaren bati ezetza eman izanaz?**

Ez, ez naiz ezertaz damutzen, beti ere lehentasuna eman diodalako etxean, Realean, jokatzeari. Hamaika denboraldi eman nituen Realean eta hemengo mutil batentzat hori da gauzarik onena. Ezin da gehiago eskatu.

**Eta orain, zer, zein asmo daukazu? Ez du ematen zelabait futbolari lotuta jarraitzeko asmorik duzunik.**

Oraingoz gustura nago, familiaz gozatzen eta lehen egiteko aukerarik ez neukan beste hainbat gauzetaz gozatzen. Etorkizunean ikusiko dugu, baina argi daukat ez dudala futbolean jarraituko. Ez daukat entrenatzaile izateko titulua edo horrelako zerbait egiteko asmorik. Futbola atzean geratu da eta aurrera begiratzeko ordua da orain.

**Anoetan izan zara aurten? Zein aukera ikusten dizkiozu Realari?**

Zaila izango da. Gaurkoa [zapatukoa, Malagaren aurkakoa, Realak 0-2 irabazi zuena] partidu erabakigarria da. Ikusi behar. Dena dela, hirugarren postua eskuratzeko borrokan jarraitzen du Realak eta ligako azken partidura arte gogor borrokatu beharko du. Lehen mailan egon behar du Realak eta ea guztion artean helburu hori lortzen dugun. Lehenbailehen lehen mailara bueltatu behar da Reala, iaz gertatutakoa oso kolpe larria izan zelako.

Anoetan bi aldiz egon naiz aurten. Egia esateko, momentuan ez daukat gogo asko futbola jarraitzeko. Baina ziurrenik hurrengo urtetik aurrera sarriago joango naiz Anoetara... Sentsazioa arraroa da hara ikusle moduan joatea.

**Iazko jaitsieraren ondoren eta zuzendaritzaren aldaketaren ondoren, denboraldi nahasia gertatzen ari da Realarentzat. Badiolak ere zeresan ugari eman du. Nola baloratzen duzu haren lana?**

Ez dut asko ezagutzen, ez dut gehiegi jarraitu haren ibilbidea. Kontua da igoera lortzea dela lehenbiziko helburua. Gero izango da guztien lana baloratzeko orduan. Orain liga amaiera bitartean pazientzia izatea eta taldea batuta egotea da garrantzitsuena. Ea hurrengo urtean lehen mailan gauden berriro.

ATZERA BEGIRA

**"Ez nuke momentu hau edo beste hura nabarmenduko. Futbolari esker ezagututako lagunekin geratzen naiz"**

ETORKIZUNA

**"Gustura nago, familiaz gozatzen eta lehen egiteko aukerarik ez neukan beste hainbat gauzetaz gozatzen"**

REALA IGOERA BIDEA

**"Pazientzia izatea eta taldea batuta egotea da garrantzitsuena"**

**BERGARA**

# Badmintona eta boleibola praktikatzen eguzki azpian

**KIROL BEREZIAK** Ohiko kirolak alde batera laga eta badmintonean eta boleibolean aritu ziren

**GIRO ONA** Giro ezin hobea zegoen eta barruko kantxa hartuta zegoenez,kanpoan jokatu zuten

**PUNTUAK LORTU** Emaitza onak lortu nahi zituzten eta biziki saiatu ziren jokalari guztiak

**NEREA MENOR** > BERGARA

Joan den martxoaren 21ean sartu ginen udaberrian, baina, zapatuko giroa ikusirik, udan geundela pentsatuko zuten askok. Eguzkiak alaitasuna eman ohi digu eta Labegaraietako kiroldegian oso nabaria zen zapatuan. Astero egiten duten bezala, Bergara, Antzuola eta Elgetako gaztetxoak ondo pasatzeko asmoarekin hurbildu ziren kiroldegira.

Goizeko 10.30etako gaztetxo denak prest zeuden jolasean hasteko. Taldeetan banatu eta ordu erdi ibili ziren badmintonean, ondoren, beste ordu erdi boleibolean. Bi hauek ez dira kirol ohikoenak, baina, Bergarako gaztetxoak primeran pasatu zuten. Emaitza ona lortu nahi zuten eta asko saiatu ziren. Beti bezala, arduradunak adi-adi begiratzen zituzten umeak; kirolen arauak ondo erakutsi behar zaizkie.

**ARETO FUTBOLA IPINTZAN**

Ordu berdinean, Ipintza DBHko patioan, benjamin kategoriako neska-mutikoak areto futbolean jolastu zuten. Mariaren Lagundiko, Aranzadiko, San Martineko, Elgetako eta Antzuolako gaztetxoek zortzi talde osatu zituzten. Goizek 10:30ak aldera hasi ziren Ash eta Misty ligetako partiduak jokatzen.

Zapatu honetan ez ziren umeen inguruan guraso asko ikusten, baina, inguruan jende asko zegoen umeei begira, kiroldegi albotik pasatzen ziren ziklistak, ondoko kanpoan futbolean jolasten zeuden mutilak, eta beste asko.



N.M.

**Mariaren Lagundia.** Andonik, Danik, Iñakik, Jonek eta Mikelek elkarrekin jolastu zuten zapatuan.



N.M.

**Aranzadi A.** Joanesek, Jonek, Mikelek, Josuk eta Ikerrek talde berean jardun zuten.



N.M.

**San Martin C.** Itsasok, Uxuek, Aliciak, Anek, Karmelek, Marianek eta Sarak osatzen dute taldea.



N.M.

**San Martin A.** Goian Joseba, Xabat eta Iker. Behean, Mohamed, Mikel eta Julen.

ZINTZO JOKATZEN DUZUE?



**Andoni Bretaña eta Aritz Rubio**
Aranzadi

Atsedenaldian topatu genituen bi mutiko hauek, badmintonean hasteko zain zeuden eta gurekin berbetan egon ziren. "Zintzo jolasten dugu beti, ez dugu askotan irabazten, baina, ez dugu tranparik egiten, ondo jokatzen ahalegintzen gara. Gaur badmintonen arituko gara, ondo pasatzen dugu, baina, futbola gehiago gustatzen zaigu, normalean futbolean ibiltzen gara eta baita pilotan ere."



**Karmele Uribesalgo eta Marian Etxezarreta**
San Martin

Karmele eta Marian duela bost minutu amaitu dute boleibol partidua, laster etxerako bidea hartuko dute, baina, bien bitartean, zintzo jokatzen duten galdetu genien. " Guk, ondo jokatzen dugu beti, ez dugu tranparik egiten, ez zaigu gustatzen, ez hemen eta ez eskolan. Gaurko kirolak dibertigarriak dira, baina, saskibaloia da guztien artetik gehien gustatzen zaiguna. Patinetan ere ondo ibiltzen gara".



**Jabi Santorcuato eta Unai Barragan**
San Martin

Jabi eta Unai Ipintzan ibili ziren, areto futbola tokatu zitzaien aurreko zapatuan. " Gaur futbolean aritu gara, gehien gustatzen zaigun kirola da, eta pozik egon gara. Guk ez dugu tranparik egiten, zintzo jolasten dugu, baina, beste ekipotakoek falta asko egiten dituzte. Gainera, arbitroak askotan ez dira konturatzen eta ez diete ezer esaten, horregatik galtzen du gure taldeak".



*Eraman dotoretasuna zure etxera*

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51





**> MUSIKA**
Bidaurreta txiki geratu zen Ganbara abesbatzaren kontzerturako **> 24**



**> ELKARRIZKETA**
Ixone Serranok errealizatzaile laguntzaile lanetan dihardu Euskal Telebistan **> 29**



**> IBAN DEL CAMPO**
"Izkina guztietan daude kontatzeko moduko istorioak" dio arrasatearrak **> 29**

# Soinuek eta panderoek Oñati hartu zuten eguna

11 trikitilari talde ibili ziren goizean goizetik kaleetako giroa animatzen

Hiru trikitalari beteranori egindako omenaldiak ikusle asko bildu zituen





**EGUZKIPEAN GUSTURA** Uda giroko eguraldia izan zen Trikiti Eguneko protagonistetako bat. JOSETXO ARANTZABAL

**TXOMIN MADINA** > OÑATI

Uda giroan egin zen zapatuan Debagoieneko IV. Trikiti Eguna Oñatin. 11 talde elkartu ziren denera, eta ibarretik ez ezik, Soraluze eta Azkoitiatik ere etorri ziren trikitilariak.

Kalerik kale ibili ziren goiz guztian zehar, eta eguerdi inguruan, Unibertsitateko plazan elkartu ziren denak, gogor jotzen zuen eguzkipean talde bakoitzak trikiti erakustaldia egiteko. Hainbat pieza jo zituzten bertan, eta jende ugari hurbildu bazen ere, ez ziren asko izan dantzan egitera animatu zirenak. Izan ere, beroak eta eguzki izpiek gerizpetara eraman zituen asko eta asko.

**TRIKITILARIEI OMENALDIA**

Eguneko momenturik hunkigarriena Oñatiko hiru trikitilari beteranori egin zitzaien omenaldia izan zen. Hala, Gregorio Kortabarria 'Sarramendi' eta Konrado Kernstock soinujoleak eta Santiago Guridi 'Beitti' pandero jolea Unibertsitate ondoan jarritako taula gainera igo ziren.

Euren ilobek jotako piezak entzun ostean, ohorezko zapia, oroigarri bat eta Oñatiko udalak egindako oparia jaso zituzten hirurek ere hainbat urtetan trikiti munduaren alde egindako lanarengatik. 'Beittik' eta Kernstockek zenbait pieza jo zituzten gero, eta urduritasunak urduritasun, argi utzi zuten urte luzetan lortutako esku ona.

Omenaldiaren ostean, 500 pertsona inguru joan ziren kiroldegira, Larraingainekoek prestatutako herri bazkarira.

**ARRATSALDEAN, ERROMERIAK**

Arazo teknikoen ondorioz atzeratu egin bazen ere, Trikizio taldearekin erromeria egin zuten arratsaldean, eta egarria zuenak, triki-poteoan parte hartzeko aukera izan zuen.

Iluntzeak baina, ez zuen festaren amaitzea ekarri, jarraipena baizik. Hala, Imuntzo eta Belokiren erromeriarekin ordu txikietarako bidea hartu zuten askok. Orduan bai, gehiago izan ziren hankak astintzera animatu zirenak.

Antolatzaileak oso gustura agertu ziren egunak eman zuenarekin, euren esanetan jende asko ibili baitzen egun guztian zehar, eta gaineratu zuten eguraldiak ere asko lagundu zuela. Hurrengo urtean Trikiti Eguna non egingo den ere iragarri zuten: Antzuolan hain zuzen ere.

**Santiago Beitia eta Konrado Kernstock** > Trikitilari beteranoak

## "Trikiti eskoletakoak ikusita, bihotza zabaltzen zaigu"

**TM** > OÑATI

**Santiago Guridik eta Konrado Kernstockek omenaldi beroa jaso zuten zapatuan, trikiti munduan egindako lan guztiagatik.**

**Nola hartu duzue omenaldi hau?**

Biak: Oso gustura, gainera hemen, trikitiaren etorkizuna direnen aurrean jasotzea oso polita da.

**Nola sartu zineten trikiti munduan?**

Santiago: 14 urterekin, afizioz, esaerak dioen moduan artzain izateko ardiak gustuko izan behar dira eta. Garai hartan soinua erosteko dirurik ez genuen, eta ni panderoarekin hasi nintzen.

Konrado: Ni 12 urterekin, soinu zahar bat oparitu zidatenean. Ezkondu nintzenean erosi nuen soinua.

**Zer suposatzen du trikitiak zuentzat?**

Santiago: Hezurretaraino dut sartuta trikitia, irratian horixe entzutea dut gustuko, soinua.

Konrado: Irratian, erromeriatan, kalean trikitia entzuteak poztu egiten nau. Egunero dut soinua hartu eta jotzeko gogoa.

**Nolakoa da trikitiaren etorkizuna?**

Konrado: Hemen dauden askok utzi egingo dute, baina berezienak geratuko dira. Trikiti eskolen lana ikusita, bihotza zabaltzen zait.



J.A.

**KRONIKA** > *HOR AL ZAUDE?*

# Bi aktore, hiru protagonista, istorio on bat eta barre ugari

Txirritola Euskara elkarteak antolatuta eta Kanpingags konpainiaren eskutik, *Hor al zaude?* antzezlana egon zen ikusgai Aramaion

**TXOMIN MADINA** > ARAMAIO

Gaueko hamarrak. Aramaioko kultura etxeko aretoa ez dago gainezka, baina jende dezente hurbildu da bertara. Argiak itzaltzen dira... Eta taula gainean Patxi (Asier Hormaza). Geroxeago, baita Ane (Ainhoa Aierbe) ere. Eta Martin. Baina nor da Martin? Edo zer da Martin? Protagonisten irudimena? Mamu bat? Ez dakigu, izan ere guk ez dugu ikusten... Hasi da *Hor al zaude?* antzezlana eta ia ordu t'erdian zehar, Patxi, Ane eta Martin izango ditugu gure aurrean. Eurekin barre egingo dugu, baina baita negar ere. Eta ezustean harrapatzen bagaitutze, baliteke ohiuren bat entzutea ere.

**BI AKTORE BAKARRIK**

Agertokian bi aktore bakarrik daudenean, aktore horiek lan itzela egin behar dute antzezlana eroangarria bakarrik ez, entretenigarria, eta kasu honetan dibertigarria izan dadin. Eta Asier Hormazak eta Ainhoa Aierbek lasai asko betetzen dute helburua. Biak ere aurpegi ezagunak dira, telebistak ematen duen famari esker ikusleak erakartzeko gai diren horietakoak, euskal *star-system*-aren erakusgarri. Hormaza bakarrik agertzen da lehen minutuetan eta Martin ikusezinarekin berbetan edo telefonotik solasean ari denean, sinesgarritasuna da ikusleari helarazten diona. Aurpegi asko dituen aktorea dela erakusten du: momentu baten barre algara eta hurrengoan negar malkoak eragiteko gai.



**AKTORE EZAGUNAK** Hormaza eta Aierbe antzezlaneko une baten. JOSETXO ARANTZABAL

Aierbek bestalde, argi uzten du antzezteko, ondo antzezteko behintzat, aurpegiaz gain beste hainbat gauza ere zaindu behar direla.Antzeztu gorputzarekin, ahotsarekin eta zergatik ez, euskalkien erabilerarekin ere egiten da, eta fin dabil Aierbe horretan, *Goenkale*-ko Leonorretik harantzago ere mundua badela erakutsiz.

**KOMEDIA, DRAMA ETA FANTASIA**

Kanpingags konpainiaren ekoizpena da *Hor al zaude?*, eta Joseba Apaolaza arduratu da zuzendari lanetaz Javier Dault idazleak sortutako lan batetan oinarrituta. Erritmoari dagokionez akatsen bat edo beste badu ere, gustura ikusten den antzezlana da, eta drama, komedia eta baita fantasia ere ederki uztartzen ditu. Bai, fantasia ere bai, xumeak, baina era berean eragingorrak diren efektu bereziekin. Dekorazio errealistak eta egoki erabiltzen den argiztapenak erakargarriagoa egiten dute oraindik ere antzezlana. Ez zuten dirutzarik gastatuko, baina gastatutakoa ondo erabili dutela ezin da zalantzarik egin.

Antzezlana bukatu eta ziren ikusleen aurpegiak begiratzean, irribarretsu zegoen jendea. Izenburuaren galderari erantzunez, bai, hor egon gara, eta hurrengoan ere egongo gara. Beti ere, Martinen baimenarekin...

**KONTZERTUA**

## Jende asko Arrasaten Abesbatzen Topaketan

Lau ikastetxetako haurren emanaldiak ia bete egin zuen Uarkape pilotalekua

**T.M.** > ARRASATE

Eskola Arteko Abesbatzen XXI. Topaketak Arrasateko Arizmendi ikastola eta Mesedeetako Andra Mari ikastetxeko eta Oñatiko Txantxiku ikastola eta Elkar Hezi ikastetxeko haurrak elkartu zituen zapatuan.

Uarkape pilotalekuan izan zen emanaldia, eta goraino bete ez bazen ere, Topaketen antolatzaileak gustura zeuden aurtengo edizioak izan duen erantzunarekin, jende asko hurbildu zen-eta gaztetxoen emanaldiak ikustera. Denera zazpi talde aritu ziren, eta bakoitzak bi abesti eskaini zituen. Batzuk abesti ezagunen moldaketak izan ziren, beste batzuk kantu herrikoiak eta erritmo afrikareko doinurik ere entzun ahal izan zen bertan.

**DENAK BATERA**

Emanaldiari bukaera emateko, bildutako 300 haur inguruk eta harmailetan zeuden ikusleek *Gabeko ilunean* abestia kantatu zuten bi ahotsetara.

**KONTZERTUA** > GANBARA ABESBATZA

## Bidaurreta txiki geratu zen Ganbara abesbatzak eskaini zuen kontzerturako

Torreviejako habaneren lehiaketan aurkeztuko duten *A tu lado* doinua lehenengo aldiz abestu zuten jendaurrean

**TXOMIN MADINA** > BERGARA

Hainbat hilabetetan Oñatin kontzerturik eman gabe egon ostean, domeka honetan emanaldia eskaini zuten Ganbara abesbatzakoek Bidaurreta monasterioan. Badirudi gainera, jendea gogoz zegoela kontzerturako, izan ere lepo bete zen Bidaurreta.

**BI ZATI**

Kontzertu berezia izan zen Ganbarakoentzat, abestu zituzten piezak botazioz aukeratu zituzteneta, 14 urtetako ibilbidean kantatu dituzten doinu kuttunenak aukeratuz.

Bi zati izan zituen kontzertuak. Lehenengoan pieza polifonikoak abestu zituzten, eta bigarrenean, kantu folklorikoak; hauen artean zeuden Javier Busto konpositorek eurentzat espresuki idatzitako *Euskal Jokoak*, eta baita *A tu lado* ere, *oñatiarrek* Torreviejako habanera lehiaketan aurkeztuko duten doinua.



**BIDAURRETAN** Jendea adi ganbarakoen kontzertuari JOSETXO ARANTZABAL

**DANTZA** > DEBAGOIENEKO DANTZARI EGUNA

## Antzuolan elkartu dira ibarreko dantzariak aurten

Antzuola, Arrasate, Oñati eta Soraluzetik heldutako bost dantza taldeak egun osoan zehar ibili ziren herriko kaleetan

**T.M.**> ANTZUOLA

120 dantzari inguru bildu zituen zapatuan Antzuolan egin zen Debagoieneko Dantzari Egunak. Antzuolako Oinarin, Arrasateko Lore Gazteak eta Arrostaitz, Oñatiko Oñatz eta Soraluzeko Urrats taldeetakoak 10:30ean elkartu ziren, eta kalejiran irten ziren ondoren.

**DANTZA SAIO JENDETSUA**

Bi dantza saio egin zituzten plazan, goizean bata eta arratsaldean bestea. Goizekoan hainbeste jende bildu ez arren, arratsaldekoan ikusle asko egon ziren dantzariei begira. Hala, dantza talde bakoitzak dantza berezi bat aurkeztu zuen. Antzuolakoek esaterako, trokeo dantzak egin zituzten, eta oñatiarrek, Atarrabiako jotak. Bukaeran gainera, larrain dantza egin zuten eta dantzariez gain, ikusleek ere parte hartu ahal izan zuten.

Dantzari Egunaren antolatzaileak gustura zeuden egunak izan zuen martxarekin. Adierazi zuten helburuak, hau da , dantzari nagusiek urtean zehar egiten duten lana erakutsi ahal izatea, beteta geratu zirela.

# ZAHARRAK BERRI SAIOA

zahaRRak BERRI

Zure intereseko **elkarrizketak, erreportajeak** eta **tertuliak** batzen dituen programa berria daukazu **GOITBn**

EGUAZTENETAN 20:15ean
EGUENETAN 13:15ean

## Aste honetan:



**NOIZ: apirilak 30**

**NOR: Amaia Diaz de Monasterioguren. Dietista**

**GAIA: Infusioak**

Kutxako Urrezko Zerbitzuko kide bazara, **SARIAK IRABAZTEKO AUKERA!**
**Deitu** programan zehar **943 00 08 34** telefonora

Goitb Goiena Telebista

*Ikustekoa!*

Babeslea: kutxa URREZKO ZERBITZUA

Kantari Debagoienean

# Saioen emanaldiak GOITBn



**NOIZ >** apirilaren 29an **ORDUA >** 20:15ean **TALDEA >** Aroa Elortza, Garazi Plazaola, Sara Beristain eta Xabi Zenitagoia **HERRIA >** Bergara **ADINA >** 9 urte **ABESTIA >** *Sarri Sarri.*



**NOIZ >** apirilaren 29an **ORDUA >** 20:15ean **TALDEA >** Ainhoa Lazkano, Ane Zangitu, Maider Uribe eta Saioa Agirre **HERRIA >** Bergara **ADINA >** 12 urte **ABESTIA >** *Zergatik ez.*



**NOIZ >** apirilaren 29an **ORDUA >** 20:15ean **TALDEA >** Ander Arruti, Gorka Egaña eta Ibon Etxabarri **HERRIA >** Bergara **ADINA >** 9 urte **ABESTIA >** *Ilargia.*



**NOIZ >** apirilaren 29an **ORDUA >** 20:15ean **TALDEA >** Alejandra Guzman, Gloria Perez, Iban Moreno eta Iker Gil **HERRIA >** Bergara **ADINA >** 10 urte **ABESTIA >** *Atalaia.*



**NOIZ >** apirilaren 29an **ORDUA >** 20:15ean **TALDEA >** Beñat Vicente, Eneko Kortabarria eta Iker Osinaga **HERRIA >** Bergara **ADINA >** 9 urte **ABESTIA >** *Iñaki.*



**NOIZ >** apirilaren 29an **ORDUA >** 20:15ean **TALDEA >** Eukene Labaka, Ane Motoso eta Paloma Nuñez **HERRIA >** Bergara **ADINA >** 10 urte **ABESTIA >** *Lo egin.*



**NOIZ >** maiatzaren 1ean **ORDUA >** 11:00etan **TALDEA >** Jon Aranzabal, Mikel Olalde, Unai Etxarri eta Xabier Murgiondo **HERRIA >** Oñati **ADINA >** 8 urte **ABESTIA >** *Arratsalde honetan.*



**NOIZ >** maiatzaren 1ean **ORDUA >** 11:00etan **TALDEA >** Garazi Azpeitia eta Helen Carr **HERRIA >** Oñati **ADINA >** 10 urte **ABESTIA >** *Izar iheskorra.*



**NOIZ >** maiatzaren 1ean **ORDUA >** 11:00etan **TALDEA >** Alix Barbero, Irati Barrera eta Izar Biain **HERRIA >** Oñati **ADINA >** 12 urte **ABESTIA >** *Kalanbrea.*



**NOIZ >** maiatzaren 1ean **ORDUA >** 11:00etan **TALDEA >** Amaiur Olalde, Irati Bikuña, Nagore Altuna eta Oihane Rodriguez **HERRIA >** Oñati **URTEAK >** 10 urte **ABESTIA >** *Marea gora.*



**NOIZ >** maiatzaren 1ean **ORDUA >** 11:00etan **TALDEA >** Ainhoa Arrizabalaga, Ane Zubia, Leire Ibarrondo eta Naia Rodriguez **HERRIA >** Oñati **URTEAK >** 9 urte **ABESTIA >** *Gau txori.*

ASTE BUKAERA...

## Inazio Arregirekin

# "Aste bukaeratan sagarrondoak eta baratzeko produktuak zaintzen ditut"

Goiena Komunikazio Taldeko zuzendariari liburuak irakurtzea, mendian ibiltzea eta musika entzutea gustatzen zaio

Lau zapatutik baten ama zaintzera joaten da Donostiara, eta hondartza aldean paseatzeko aprobetxatzen du

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Inazio Arregi (Oñati, 1951) Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari orokorra da. 2001ean Goienak egindako proposamena onartu zuen, eta Ikastolen Elkartean zuen lana utzi zuen. "Goienara iritsi nintzenean haur jaioberri batekin egin nuen topo. Ez genekien proiektu hark etorkizunik izango zuen. Baina, ia zortzi urte pasa dira, eta zorionez egoera onean gaudela esan genezake", azaldu digu Inazio Arregik.

Astelehenetik egubakoitzera bere karguari dagozkion lanak egiten ditu. "Gehienbat gestio lana egiten dut Goienan, besteak beste, urteko helburuak zehaztu, urtea planifikatu eta eguneroko jarraipena egin. Gainera, Erretore Kontseilua dinamizatzen dut. Hori guztiori egiten ematen ditut orduak astelehenetik egubakoitzera", diosku.

**FELIX-BALTISTAN FUNDAZIOA**

Laneko kontuak bukatzen dituenean, beste konpromiso batzuei egiten die aurre, besteak beste Felix-Baltistan Fundazioari. "Felix Iñurrategiren heriotzaren ondoren, 2000. urtean sortu zen fundazioa. Felixen gurasoak dira ohorezko presidenteak, eta ni neu presidentea. Hortaz, fundazioari ere ordu batzuk eskaintzen dizkiot", azaldu digu.

Astelehenetik egubakoitzera aisialdian pentsatzeko denbora gutxi izaten duenez, aste bukaerak aprobetxatzen ditu horretarako. Baina, planak egiterako orduan badaki lau aste bukaeratik baten, Donostian bizi den ama zaindu behar duela. "Lau anaiarreben artean konpontzen gara ama zaintzeko. Hala, lau astean behin Donostira joaten naiz amarengana", esan digu. Hondartzara gutxitan joaten den arren, Donostiara bisita egiten duenean paseatzea gustatzen zaio.



**ZELAIETAN** Inazio Arregik 60 bat sagarrondo landatu zituen aspaldi, Zelaieta baserriko lursailean. JOSETXO ARANTZABAL

### "Musika entzutea gustatzen zait, baina autoan irratia jartzen dut"

Etxean bi MP3 dituen arren, musika CDan entzuten duela esan digu."Musika arloan nahiko klasikoa naiz. Bluesa gustatzen zait, eta baita musika klasikoa ere. Astor Piazzolaren musika ere oso gustura entzuten dut. MP3an musika grabatuta dudan arren, beti, CDan entzuten dut. Belarrietan entzungailuak jartzea ez zait gustatzen". Dena den, autora sartzen denean, normalean Euskadi Irratia pizten du. "Irratia euskaraz entzutera ohitu naiz", dio.

Bere alaba Ganbara abesbatzako kidea da. "Musika korala etxean ez dut entzuten, baina Ganbara abesbatzaren kontzertu gehienetara joaten ahalegintzen naiz. Ganbara abesbatzak Alacanten eta Avilesen kontzertuak eman zituenean hantxe egon nintzen", esan digu.

Etxean lasai dagoenean musika klasikoa entzuten du, besteak beste, Beethovenen bederatzigarren sinfonia entzuten du.

Familiarekin egoteko denbora edukitzen ahalegintzen da. "25 urteko alaba eta 22 urteko semea ditut. Beraiekin egoten ahalegintzen naiz, baina bakoitzak bere bizitza egiten du. Dena den, nire beharra dutenean, badakite non nagoen".

**MENDIA, BARATZA ETA LIBURUAK**

Zaintzaile lanak egiten ez dituenean, ezagutzen ez dituen mendietara joatea gustatzen zaio. "Oñatiarra izanik, badira bi urte Urbiara joaten ez naizela. Aldiz, Baztan aldera askotan egiten dut. Ezagutzen ez ditudan mendietara joaten naiz. Era berean, Pirinioetara joaten naizenean nire kontura egiten ditut irteerak".

Aste Santuan Sierra de Gredosen egon zen, eta Mulacen mendia igotzen ahalegindu zen. "Ez ginen goraino heldu, elurra zegoen-eta; baina ondo ibili ginen", esan digu. Oporrak dituenean Alpeetara joatea atsegin du.

Santxolopeztegi auzoan zegoen Zelaieta baserriko lursailean 60 bat sagarrondo landatu zituen aspaldi. "Orain ez ditut hainbeste, batzuk zahartu egin dira-eta. Baina, daudenak zaindu egiten ditut", dio Inazio Arregik. Garai batean, sagarrondoetatik batzen zituen sagarrak saldu egiten zituen. "Sagardotegietan saltzen nituen sagarrak. Baina, konturatu nintzen irabazten nuena baino diru gehiago galtzen nuela, eta utzi egin nuen".

Bestalde, baratzean ere hainbat landaketa egiten ditu. "Uda partean tomateak landatzen ditut, eta neguan ilarrak. Gainera, lekak ere landatzen ditut". Sagarrondoak zaintzeko lanak eta baratzeko kontuak aste bukaeratan egiten ditu.

**BIESCASERA IHESALDIAK**

Aste bukaeratan libre samar egoten denean Biescasera (Huesca) joaten da, eta maletan, beti, liburuak eroaten ditu. "Asko gustatzen zait irakurtzea, baina, denbora gutxi izaten dut. Irakurtzeko nahiago dut bakarrik egotea". Orham Pamukek idatzitako *Kar* eleberriaren itzulpena da irakurri duen azken liburua. "Jokin Zaitegi itzulpen sariketari esker Monika Etxebarriak eta Fernando Reyk egindako *Edurra* izeneko liburua irakurri dut. Eta, gomendagarria da".

Eleberri historikoak irakurri izan ditu, baina, azkenaldian argitaratzen diren liburuekin asko ez dela fidatzen esan digu: "Alde batera utzi ditut halako liburuak".

Aste bukaeratan, egubakoitzetan lagunekin poteoa egitea gustatzen zaio.

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

## 943 25 05 05

## sailkatuak@goiena.com edo www.goiena.net-en

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**

- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.
- LOKALA SALDU/ALOKATU.
- GARAJEA SALDU/ALOKATU.
- MOTORRA SALDU.

GOIENKARIA + ASTELEHENEKO GOIENKARIAN 17 € ASTEBETE (BEZ BARNE).

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**

MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 22 € (BEZ BARNE).

GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 30 € (BEZ BARNE).

OHARRA: BI MODULU BAINO GEHIAGO JARTZEKO DEITU 943 25 05 05 TELEFONORA.

Iragarki partikular zein profesionaletan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** 90 metro koadroko duplexa salgai Zurrategi plazan. Bi logela eta bi komun (bat leihoarekin). Eguzkitsua eta balkoiarekin. Sarrera bi solairuetatik. Garaje itxia. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 943 76 65 03 edo 656 73 25 99.

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza erdialdean. 16 metro koadroko garajearekin. Prezio interesgarria. Saltzeko presarekin. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 659 64 67 38.

**Bergara.** Labegaraietan 50 metro koadroko etxebizitza. Berritua eta erdi jantzia. Berogailu eta hidromasajea. Dena kanpoaldera begira. Penintsula sukalde irekia, egongelarekin. Bi logela eta despentsa txikia. 28.800.000pta. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 635 71 04 55.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Peñiscola (Castello).** Apartamentua errentan hondartzatik gertu. Igerilekuarekin. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 948 41 00 79 edo 616 95 04 00.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Etxea hartu nahi dugu errentan. Bikote arduratsua gara. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 669 12 25 63.

**Arrasate.** Urtebeteko umea daukan bikote batek etxea errentan hartuko luke. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 610 67 12 22.

**Bergara.** Etxea hartu nahi dut errentan. 648 13 35 62.

**Bergara.** Familia batek etxebizitza hartuko luke errentan Bergaran. 650 62 12 94 edo 685 70 76 25.

**Debagoiena.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Oñatin bada hobe. Etxe txikia nahiago. 652 71 21 23.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aramaio.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. 699 28 99 06.

**Aretxabaleta**. Lanean hasi berri naiz eta bertan edo inguruan –bereziki Arrasaten– logela alokatu nahi nuke. Hasiera baten, urtebeterako. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara:653 74 28 83.

**Arrasate.** Gela bat alokatzen da erdialdean, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Abuztuaren bukaera arte bakarrik. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 630 71 35 83.

**Bergara.** Erdialdean (Izizar pasealekuan) gela txikia errentan ematen da. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara:649 63 23 24.

**Gasteiz.** Neska bat behar dugu Gorbea kalean etxea osatzeko, maiatzetik aurrera. 300 euro gehi gastuak. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara:652 72 18 87.

## 3/ LOKALAK

### 304. ERRENTAN HARTU

**Bergara eta Arrasate.** Jardunean dagoen taberna bat alokairuan hartuko nuke. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 697 20 78 24.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Pertsona bat behar da astean behin etxea garbitzeko. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 943 79 41 15.

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta** edo Arrasaten garbiketa lanak egingo nituzke. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 646 50 83 59.

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu adinekoak zaintzeko. Esperientziaduna. Mari. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 943 53 33 92.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu edozein lan egiteko. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakume gaztea gertu umeak zaintzeko. Esperientziaduna. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 667 87 99 16.

**Arrasate.** Neska euskalduna gertu atariak eta etxeak garbitzeko. Esperientziaduna. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 663 04 53 99.

**Bergara** edo Arrasate. Emakumea gertu pertsona nagusiak egunez edo gauez zaintzeko eta baita garbitasun lanak egiteko ere. Paperak dauzkat. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 686 99 59 41.

**Bergara** edo Arrasate. Neska gertu ekainean eta uztailean haurrak zaindu edo tabernan lan egiteko. Gizarte Integrazioa ikasten ari naiz. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 636 01 60 15.

**Bergara.** Emakume bat gertu garbiketa lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 606 64 16 09.

**Bergara.** Emakumea garbiketa lanak zein haur edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 627 03 16 40.

**Bergara.** Emakumea gertu umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara:664 12 43 25.

**Bergara.** Paperak dituen emakumea haur zein nagusiak zaintzeko prest, baita garbiketa lanak egiteko ere. Deitu telefono honetara: 686 99 59 41.

**Bergara.** Paperak eguneratuta dituen emakumea lan bila dabil. Garbiketa lanetan, zerbitzari edo sukaldeko laguntzaile. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 663 15 39 92.

**Debagoiena.** Adinekoak zaintzeko emakumea gertu. Orduka, egun osoz edo gauez. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 678 80 96 01.

**Debagoiena.** Arratsalde edo asteburuetan pertsona nagusiak zaindu edo tabernetan lan egiteko gertu nago. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 666 21 88 95.

**Debagoiena.** Ekuadorko emakume arduratsua etxeko lanak egiteko gertu. Etxean bertan lo egiteko prest. Paperak ditut. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 688 68 06 96.

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu umeak zaindu edo garbitasun lanak egiteko: etxeak, tabernak, bulegoak... Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 696 11 01 94 edo 943 77 16 73.

**Debagoiena.** Emakumea etxean lan eta lo egiteko prest. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 669 33 65 54.

**Debagoiena.** Emakumea gertu haurrak edo pertsona nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 618 94 19 93.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zainduko nituzke. 661 06 07 23.

**Debagoiena.** Geriatria laguntzaile titulua duen neska gertu nagusiak edo umeak zaintzeko, eta garbitasun lanak egiteko. Nagore. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 615 76 30 62.

**Debagoiena.** Haur Hezkuntza ikasten ari den neska eskaintzen da arratsaldez haurrak zaintzeko. 15:00etatik aurrera lan egiteko prest. Interesatuok Leiregatik galdetu. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 699 74 98 13.

**Debagoiena.** Lan egiteko gogo handia duen mutila edozein lan egiteko gertu. Arkaitz. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 622 81 53 31.

**Debagoiena.** Lan egiteko gogo handia duen mutila edozein lanetarako prest. Aaron. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 622 84 08 86.

**Debagoiena.** Lantegian edota makinak garbitzen lan egingo nuke. Baita sukaldari lanetan ere. Esperientziaduna. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 656 66 49 75.

**Debagoiena.** Mutil gaztea pertsona nagusiak edo atarietako garbitasun lanak egiteko gertu. Paperak ditu. 696 38 10 07 edo 649 63 23 24.

**Debagoiena.** Neska arduratsua garbiketa lanak egin edo umeak eta nagusiak zaintzeko prest. 661 06 07 23.

**Debagoiena.** Neska gertu haurrak zaindu edo tabernan lan egiteko. Esperientzia eta lan egiteko gogoa.

Irakasle ikasketak egiten ari naiz. 669 61 97 71.

**Debagoiena.** Paperak dituen mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. 696 48 42 50.

**Emakumea** prest pertsona nagusiak zein haurrak zaintzeko, baita etxeko lanak egin edo garbiketak egiteko. 686 99 59 41.

**Mutil gaztea** informatika, auto mekanika, txapa eta pintura, elektrizista edo igeltsero ezagutzekin edozein lanetarako prest. 697 66 79 37.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Debagoiena.** Batxilergoko matematikako eskola partikularrak hartu gura ditut. 645 72 25 24.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu Arrasaten. Maila guztiak: unibertsitatea, zikloak, batxilergoa eta DBH. Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea... Arreta pertsonalizatua. 630 71 35 83.

**Debagoiena.** Mutila matematika eskolak emateko gertu. Maila guztiak, Lehen Hezkuntzatik hasi eta unibertsitateraino. Baita ere urritasunak dituzten ikasleei. 696 38 10 07.

**Eskola partikularrak** ematen ditut. Ekaina eta uztailean, Lehen Hezkuntzako umeei. Interesatuek deitu zenbaki hauetara:. 650 23 34 98 edo 943 03 76 04.

## 6/ MOTORRA

### 603. ALOKATU

**Autokarabana** hartuko nuke errentan abuztuan. Lau pertsonarendako modukoa gutxienez. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 677 98 54 91.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Basurdeak** salgai Orozkon. Hiru hektareako zarratua basurdeekin, txakurrei erakusteko. 200 euro. 678 72 75 72.

**Txakurkumeak.** Golden Retriever txakurkumeak salgai. 300 euro. 677 05 39 06.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Apalategi** metalikoak salgai. 100x60 neurrikoak. Deitu telefono honetara:. 943 76 11 21.

**Autoan** umeak eramateko segurtasun aulkia salgai. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 656 78 64 64.

**Basalurra** salgai Osintxu, Urkulu, Bolibar eta Antzuolan. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 678 72 75 72.

**Bizikleta.** MTB-Pagotxa!! 750 euro! Estreinatu gabeko bizikleta S-Crash markakoa: Esekidura bikoitza, atzean eta aurrean"Rock-Shox", Shimano-XT 2007, disko-balazta Magura Julie hidraulikoa. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 652 73 83 25.

**Bizikleta** berria salgai. Erabili gabea. Parrilla eta saskia dauzka. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 655 74 48 85.

**Carry-Bike** salgai, 4x4 autoetan bizikletak eramatekoa. Bi bizikletarendako. 50 euro. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 679 10 95 23.

**Erlojua.** Festina markako emakumeentzako urrezko erlojua eta esku-kronometroa salgai. Berriak. Dena 400 euroan. Nereagatik galdetu. 943 79 68 18.

**Garajerako atea** salgai. Erabili gabea. Prezio bikainean. Neurriak: 3,16x3 m. Gaineko finkoa: 0,50 m. Automatismoa jartzeko prest. Puertas Nueva Castilla etxekoa. 605 75 96 11.

**Jaunartzea** egiteko marradun alkandora eta jaka urdin iluna salgai. 656 78 64 64.

**Karro-denda** salgai, sukaldedenda independentearekin. Bi logela bikoitz, jantokia 4-6 pertsonarentzako. Osagarri ugari. Egoera onean, beti garajean gordeta. Prezioa: 1.600 euro. 615 72 47 43.

**Mahai** obalatua salgai. 136 x 90 neurrikoa. Luzagarriekin. Asier. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 617 17 15 88.

**Marshall 800** anplifikadorea salgai. 100 watt. Balbulekin. 800 euro. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 630 60 90 53.

**Olympus E-410** argazki kamera digitala saltzen dut. ED 14-42 milimetroko eta 40-150 milimetroko objektiboekin. Bateria eta kargadorea. USB eta bideo kableak. Olympus Master 2 Software CD-ROMa. Erabili gabe dago. 650 euro. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 660 80 09 71.

**PSP Slim** bideojoko berria salgai. 8 GB-ko memoria eta eramateko poltsarekin. 250 euro. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 665 74 91 28.

**PlayStation I** salgai. Erabili gabea. Bi aginte tresnarekin. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 945 44 52 96.

**Teleskopioa** daukat salgai. Astrolon markakoa. 402 potentzia. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 656 78 64 64.

**Txakurkumeak.** Ispanier arrazako txakurkumeak salgai. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 664 46 06 45.

**Zigiluak.** 36 urtean bildutako Espainiako posta-zigiluak salgai. 1965etik 2000ra, biak barne. Denak berriak dira. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 657 10 90 78.

### 802. EROSI

**Bizikleta estatikoa** erosi nahi dut. 619 88 26 84.

**Lursaila.** Autokarabana bertan uzteko lursaila edo kanpineko partzela erosiko nuke. 600 08 27 89.

### 804. HARTU

**Hozkailu** zahar bat hartuko nuke. 943 79 66 00.

### 806. GALDU

**Betaurrekoak** galdu nituen martxoaren 29an Arrasaten. Pastarik ez dute eta oso arinak dira. 659 36 88 75.

**Diru-zorroa** galdu dut Bergaran. Pantera Arrosaren marrazkia dauka kanpoan. Barruan pendrivea dauka. 685 72 90 04.

**Erlojua** galdu dut Loramendi Kirolak eta Super BM artean. Aurkitu baduzu deitu, mesedez. 630 75 44 19.

**Haur manta** polar bat galdu nuen igandean Bergaran. Horia eta letra eta zenbakiekin. 678 00 08 43.

**Patin motxila** gris eta beltza galdu dut Bergaran. Barruan neskatila zapatak dauzka. Aurkitu baduzu, dei egidazu. 943 76 07 89.

### 807. AURKITU

**Paparrekoa.** Bergarako Artekale kalean urre koloreko paparrekoa aurkitu dute. Paparrekoak erdian harri zuri bat dauka. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara:943 76 13 86.

### 808. BESTELAKOAK

**Arrasate eta Iruñea** arteko joan-etorria egiteko, autoa eta gastuak elkarren artean ordaintzeko jende bila nabil. Igandeetan joan eta ostiraletan etortzen naiz. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara:635 75 94 57.

**Oñati eta Bilbo**. Oñati (edo inguruko herriak) eta Leioako unibertsitate arteko eguneroko joan-etorria egiteko, autoa eta gastuak elkarren artean ordaintzeko jende bila nabil datorren urteari begira. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 670 52 58 79.

**Perkusionista.** Musika talde baterako perkusionista behar da grabazioetan eta zuzeneko emanaldietan jotzeko. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 656 30 97 48.

## 9/ HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Taldekide bila** Bergarako Emon taldea, taldea guztiz osatzeko tronboi eta tronpeta bila dabil. Deitu telefono honetara: 675 70 81 93

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen txokoa

**Zorionak irabazleoi!**

Gaur, apirilak 28, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

**Saridunak**

**Euskal selekzioko 2 txubaskero**
- MIREN LETE UGARTE (Oñati)
- FRANCISCO LASAGABASTER URIBEETXEBERRIA (Eskoriatza)

**Euskal selekzioko 2 kamiseta**
- M.PAZ VAZQUEZ EGIA (Aretxabaleta)
- JESUSA IGARZABAL GURIDI (Bergara)

Sariak jasotzeko epea: 15 egun

**Harpidedun ez bazara...**

Harpidedun egiteko: 943 08 10 50 09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota: 38 euro 2008ko urteko kuota

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

## astea GOITBn

### Astelehena, 28



**> Bergarako Udaleko Osoko Bilkura eskainiko dute 21:15**

Joan den egunean Arrasateko osoko bilkurarekin egin zuten bezala, gaur Bergarako osoko bilkura osorik eskainiko dute Goiena Telebistan.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Erreportajea-Ttipi TTapa.
**14:15** Eltze beroa.
14:45 Berriak.
**15:15** Ilunpean
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Berbaire.
**16:15** Berbaire.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazkiak.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Ikusten.
**18:15** Teknopolis.
**18:45** Berriak.
**19:15** Animalia.
**19:45** Berriak.
**20:15** Harmailatik.
**20:45** Berriak.
**21:15** Bergarako osoko bilkura.
**22:15** Harmailatik.
**22:45** Berriak.
**23:15** Kirolari.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** 28 Klipa.
**00:15** Emisio amaiera.

### Martitzena, 29



**> Afizioak eta ohiturak aztergai GOITB-n 22:15**

'*Euskaldunak Hizketan*' saioan lehengo afizio eta ohiturak izango dituzte mintzagai. Txikiteoa edota jolasen gainean arituko dira.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Horry.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Erreportajea.
**14:15** Harmaillatik.
**14:45** Berriak.
**15:15** Animalia.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Kirolari.
**16:15** Eltze beroa.
**16:45** Berriak.
**17:15** Horry.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** 28 Klipa.
**18:15** Musikantoi.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak: Horry.
**19:45** Berriak.
**20:15** Kantari.
**20:45** Berriak.
**21:15** Teknopolis.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Berbaire.
**22:15** Euskaldunok hizketan.
**22:45** Berriak.
**23:15** Ikusmira.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** Erreportajea.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 30



**> Amaia Diaz de Monasterioruguren 'Zaharrak Berrin' 20:15**

Eguaztenero moduan, *Zaharrak berri* saioan tertulia, Amaia Diaz de Monasterioguren dietistaren aholkuak eta erreportajea.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Kantari.
**14:15** Eltze berioa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Berbaire.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Euskaldunok hizketan.
**16:15** Teknopolis.
**16:45** Berriak.
**17:15** Calimero.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Animalia.
**18:15** Harmailatik.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Berriak.
**20:15** Zaharrak berri.
**20:45** Berriak.
**21:15** Ikusten.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Euskal artzainak.
**22:15** Ur eta lur.
**22:45** Berriak.
**23:15** Teknopolis.
**23:45** Gaurkoak.
**23.47**Jazzmina.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguena, 1



**> 'Musikantoi' saioan, musikaz gozatzeko aukera 22:15**

Musika zaleentzat galdu ezin den hitzordua eguneroko *Musikantoi*. Maider Arregik zuzenduta, musika kontzertu eta bideklipak ikusgai.

**08:00** Emisio hasiera.
**08:05** Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron.
**11:00**Kantari.
**12:00**Ur eta lur.
**12:30**Berbaire.
**13:00**Euskal artazainak.
**13:30**Euskaldunak hizketan.
**14:00**Erreportajea.
**14:30**Ikusmira.
**15:00**Animalia.
**15:30**28 klip.
**16:00**Marrazki bizidunak.
**19:00**Jazz gauak.
**19:30**Eltze beroa.
**20:00** Ur eta lur.
**20:30** Erreportajea ttipì ttapa.
**21:00** Musikantoi.
**21:30**Animalia.
**22:00** Astekoak.
**22:15** Gertutik.
**22:45**Erreportajea.
**23:15** Teknopolis.
**23:45**Ilunpean.
**00:15** Musikantoi.
**00:30**Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 2



**> Etxeko txikienendako marrazki bizidunak 08:30**

08:30etik aurrera etxeko txikitxoendako saioak izango dira Goiena Telebistan. Hain zuzen ere, *Munduko futbol txapelketa* eta beste hainbat.

**08:00** Emisio hasiera.
**08:05** Marrazki bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron.
**11:00** Ikusmira.
**11:30**Ikusten.
**12:00** Astekoak.
**12:15** Klip.
**12:30** Gertutik.
**13:00** Eltze beroa.
**13:30** Erreportajea.
**14:00** Gertutik.
**14:30** Errepor-ttipi ttapa.
**15:00** Kantari.
**16:00** Marrazki bizidunak.
**19:00** Euskaldunok hizketan.
**19:30** Ikusten.
**20:00** Ur eta lur.
**20:30** Eltze beroa.
**21:30** Erreportajea ttipi ttapa.
**22:00** Erreportajea.
**22:30** Ilunpean.
**23:00** Musikantoi.
**23:30** Jazmina.
**00:00** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

FM 107.7

**> Beste sukaldaritza liburu bat zozketatuko dute 10:30**

Asteotan, Bruno Oteiza Donostiako sukaldariaren *Cocinar con Bruno Oteiza* liburua zozketatuko dute. La Sexta telebista katean dihardu lanean eta besteak beste, Mexikon bi jatetxe ditu. Arzak izan zuen maisu.

### Zapatua

**10:00** Asteko gainbegiratua.
Xabier Silveira bertsolaria, *Ilunpean* saioan; Oihuka diskoetxeko sortzaile izandako Ritxi Aizpuru; *Zaharrak berri* saioan, eta sexologia kontuak, besteak beste.

### Domeka

**10:00** Asteko gainbegiratua.

### Astelehenetik egubakoitzera

**10:00-12:00** Igo Autobusera
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Teknoberriak
Igo Euriborrera!
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepasoa
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com, goiena.net*)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## asteko hitzorduak

### Erakusketa



BERGARA

**> Joxerra Elortzaren margolanak ikusteko aukera dago Aroztegin**

Joxerra Elortza (Elgoibar, 1957) artistak erakusketa zabaldu du Bergarako Aroztegi aretoan. Den-dena begientzat, ezer ez belarrientzat izenburua du, eta egunero dago zabalik, maiatzaren 18ra arte.

### Kontzertua



OÑATI

**> Musika eskolako hainbat taldek kontzertua egingo dute gaur**

Oñatiko Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleek kontzertua egingo dute gaur, Santa Ana aretoan, 18:30ean. Hizkuntza Musikal, piano, txistu, gitarra, akordeoi, trikiti eta pandero, ahots… taldeek parte hartuko dute.

### Zinema



ELGETA

**> Espioitza eta pribatutasunaren gaineko 'Mataharis' filma dago etzi**

Iciar Bollain zuzendariaren *Mataharis* (2007) filma emango dute etzi Espaloia antzokian, 21:30ean. Ines izeneko detektibe batek enpresa bateko azpijoko bat deskubritzen du, eta, era berean, langileen hainbat sekretu.

## gertutik



Ixone Serrano
Errealizatzailea

# "Errealizatzea kazetaritza egitea baino gustukoago dut"

**MIREN ARREGI** > ARRASATE

**Errealizatzaile laguntzaile lanetan dihardu Ixone Serrano arrasatearrak ETB-n. 24 urteko gazte honek, Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi zuen Bilbon; ondoren, zinearen gaineko kurtso bat ere egin zuen. Goiena Telebistako *Musikantoi* saioko lehen aurkezlea izan zen eta kazetari lanetan ere aritu zen.**

**Kazetari izatea zer den badakizu, eta teknikoen lana ere ezagutzen duzu…**

Produkzioan eta errealizazioan aritu nintzen ETB-n praktikak egin nituenean, eta gerora, Goiena Telebistan, izan nuen lehen kontaktua kazetaritza alorrarekin. Egia esan alde handia dago bien artean; kazetariak idatz egin behar duen bitartean, errealizatzaileak muntatu egin behar du. Helburu bat lortze bideko bi prozesu desberdin dira. Ni gusturago nago errealizatzaile laguntzaile lanetan kazetaritzan baino. Gustatzen zait.

**Zein lan egiten duzu zehazki Euskal Telebistan?**

Albistegiak, eguraldiaren tartea, *Eguna iruditan* eta *El Punto saioak* errealizatzen ditugu. Oso ordutegi desberdinetan emititzen diren saioak dira eta txandak egiten ditugu. Batzutan goizez egiten dugu lan, bestetan arratsaldeko txandan eta azkenik, iluntze-gaueko txandan.

**Arrasatera etortzen zara?**

Bilbon bizi naiz baina sarri etortzen naiz Arrasatera. Faltan botatzen dut herria eta batez ere herriko bizimodua.

**Badakigu saskibaloian aritu izan zarela…**

Bai, jokatu izan dut baina egun ez naiz saskibaloian aritzen. Egia esan, pena ematen dit, Bilbon nagoelako ezin dut-eta jokatu; baina agian, egunen batetan bueltatuko naiz. Eskoriatzako saskibaloi taldean ibili naiz txikitatik eta ikasketei heldu nienean utzi nion entrenamendutara joateari eta orduan utzi nuen taldea ere.

**Telebistarik ikusten duzu?**

Bai, eta ezin dut esan gustatzen ez zaidanik, izan ere, *kutrea* bada ere, entretenigarria da.

## kuxkuxeroa



Txomin Madina

# Eguraldi hau ulertzen duenak...

Duela hilabete, elurra. Pasa den astean, euria . Asteburu honetan, udako eguzkia, tenperatura eta giroa. Ez dute lan erreza azkenaldian eguraldi iragarleek. Ezta guk ere: botak ala txankletak? Piratak edo berokia? Barruko kamiseta, bai ala ez? Hainbeste zalantza...

Ostarte bat ikusi orduko zalantzarik egiten ez dutenak txirrindulariak dira. Bizikleta hartu eta segi errepidera! Asteburuan ere asko eta askok egin dute hori gure ibarrean. Nik neuk ez, ditugun errepideak ikusita, askotan

**"Ditugun errepideak ikusita, nik neuk behintzat ez dut berehalakoan bizikleta hartuko"**

kotxea hartzeko ere beldur izaten naiz-eta!

Euskal folklorea gustuko duenak, zapatu betea izan du: Oñatin trikitixa, Antzuolan dantzariak eta Arrasaten abesbatzak. Batzuek futbola ere sartuko lukete gure tradizioen barruan, eta horiek ere izan dute non aukeratu. Baita zer ospatu ere. Oñatin adibidez, beteranoen futbol txapelketako finalean zein talde ariko diren erabaki zen zapatuan. Ikustekoa izan zen hainbatek hori ospatzeko bota zuten parranda. Errekuperatuko al dira final handirako?

Itxarondako ospakizuna, Arrasateko Aranatarren etxekoa izango da, astebete piratek bahituta egon ostean, Mikel etxera bueltatzen denean. Hori bai, badaezpada aterpean ospa dezatela...

## Zorion Agurrak



ESKORIATZA
**Alaitz Salaberria Beitia**
Apirilaren 22an bi urte.Zorionak etxeko danon partetik eta muxu haundi bat.



ARRASATE
**Eneko Urkia**
Apirilaren 23an. Kontuz honekin, oingo asteburuan bildurra emungo dau ta! Zure kuadrilla, Zubipe kuadrilla.



ARRASATE
**Eneko Urkia**
Apirilaren 23an, 24 urte. Zorionak Enekito!! Ondo pasau zure eguna eta muxu handi bat! Amama, ama eta Iraian partez!



OÑATI
**Eli Cuesta**
Zorionak potxola! Espero ondo pasaittia eguna eta aste bukaeran ondo ospaketia! Mila muxu kuadrilakuen partetik!!



OÑATI
**Ander Bolinaga**
Apiriliren 24an 13 urte. Zorionak familiakoen partetik, bereiziki etxekoen partetik.



ARRASATE
**Bittor Arana**
Apirilaren 25ean. Ondo pasatuko zenuelakoan, zorionak etxekoen partetik, batez ere Amaiur, Uxue eta Goiatzen partetik!



ARETXABALETA
**Estitxu Uribetxebarria**
Apirilaren 25ean 29 urte. Zorionak Estitxu! Patxo bat kuadrilakoen partez!!



BERGARA
**Eider Iturbe**
Apirilaren 25ean. Zorionak Eider, ondo pasau eguna. Zure lagunen partetik!



OÑATI
**Unax Aranburu**
Apirilaren 25ean 4 urte. Zorionak, txapeldun! Patxo handi bat etxeko denen partetik.



ARRASATE
**Maider Letona**
Apirilaren 25ean. Zorionak, potxola eta patxo handi bat etxekoen, Asier eta Ekainen partetik.



OÑATI
**Eugenio Lazkanoiturburu**
zorionak aitaita! familiren partetik eta batez ere iloben partetik.



OÑATI
**Ezozi Soba**
Apirilaren 26an. Potxoli! Zorionak eta urte askotarako! Patxo haundi bat kuadrillakuon partetik!



ARRASATE
**Ramon Lopez**
Apirilaren 26an 22 urte!!! Zorionak bisonte!! Ta ondo pasau eguna!! Shaggytarren partez!!



ESKORIATZA
**Itsaso Eraña**
Apirilaren 27an urtebetetze eguna. Zorionak etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
**Ander Zubia**
Apirilaren 27an 12 urte. Ea zure urtebetetzetarako sendatzen zaren. Arane, aita eta amaren partez.



ARRASATE
**Joxemiel Aranzadi Lozano**
Apirilaren 27an Urte askotarako! zorionak eta patxo erraldoia etxekoen partetik.



OÑATI
**Ainhoa Urzelai**
Apirilaren 27an, 10 urte. Gure etxeko masustari, bere urtebetetze egunean mila zorion etxekoen partez.



OÑATI
**Ioritz Zabaleta**
Apirilak 27an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat!! Tia Ainhoa eta familia guztiaren partetik.



OÑATI
**Itziar ugarte**
Apirilaren 27an zorionak wapixima!! oso ondo pasau ta aprobetxau!!! Kuadrillakuan partetik



ARRASATE
**Itxaro Artola**
Zorionak amatxo! Eta patxo haundi haundi bat Luken eta familia guztixan partez!!!



ESKORIATZA
**Pablo Berezibar Arevalo**
Apirilaren 29an, 6 urte. Zorionak txapeldun! Malen, Martin eta Naroan partetik.



ARAMAIO
**Uxue Arana**
Martitzenean 2 urte handi!
Muxu bat eta ondo pasatu! Etxekoen izenean, batez ere Amaiurren partetik.



ARETXABALETA
**Markel Pando**
Apirilaren 29an, 4 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxeko guztien partetik, batez ere Kaiet anaiaren partetik.



BERGARA
**Marijo Martinez**
Apirilaren 30ean 38 urte. Zorionak, Angiozarko eskolako haur eta herritar guztien partez. Muxus



ARRASATE
**Edurne Olazabal Alberdi**
Zorionak! Ea noiz ospatzen dittugun zure 32 urtetxoak. Martxel eta Bingen.



ARRASATE
**Uxue Lopez Lasa**
Maiatzaren 1ean. Zorionak eta patxo haundi bat familixa danan eta batez be Kepan partetik!!!



OÑATI
**Alaitz Egaña Azkargorta**
Maiatzaren 1ean 7 urte. Zorionak Politte! Tio Bittor, Izeba Marije, Iban ta Amaian partez!



ESKORIATZA
**Unai Beloki**
Maiatzaren 2an 8 urte. Zorionak etxeko guztien partetik.



BERGARA
**Danel Gonzalez Rodriguez**
Maiatzaren 2an urtebete! Zorionak eta patxo haundi bat Lucia eta Hugoren partetik.



ARAMAIO
**Aitor Arana**
Maiatzaren 2an. Zorionak! Etxekoen partetik, batez ere Amaiur eta Uxuen partetik!



ANGIOZAR
**Igone Elorza Laspiur**
Apirilak 29 bere urtebetetzea. Zorionak, etxeko danen partetik batipat Markelen izenean. Muxuak.


## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:
**Arrasate** Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05 / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05. **Bergara** Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.
**Oñati** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65 **Aretxabaleta:** Goiena: Durana 11. 943 79 86 21. **Aramaio:** Kintelena janari denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.
**Elgeta:** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98. **Antzuola:** Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 100 euro.** Asteleheneko Goienkariako harpidedunak: 90 euro.
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **120 euro**.
Asteleheneko Goienkariako harpidedunak: 110 euro.
**Goienkaria: astero, 50.000 irakurle Gipuzkoan (CIES).**




OROIGARRIA

# Aratz Ugarte Larreta

*Zure agurrak, Aratz*
*gure irribarrea du itzali*
*Ikastolan elkarrekin bizi izan dugunak*
*hemen dirau*
*beraz, ez adiorik gero arte baizik*



TXANTXIKU IKASTOLA

Oñatin, 2008ko apirilaren 28an.

ESKER ONA

# Candida Garitano Eguren

Bergaran hil zen, 2008ko apirilaren 20an, 92 urte zituela

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2008ko apirilaren 28an



**Asturiaseko abesbatza Bergarako Santa Marinan.** Asturiaseko Pola de Sieroko Angel Embil abesbatzak Bergarako Santa Marina parrokian kantatu zuen zapatuan. 30 lagunek abestu zuten. Bi pieza, gainera, Bergarako Aritzeta abesbatzarekin batera kantatu zituzten. Angel Embil abesbatzako lagunak egubakoitzean etorri ziren Bergarara. Zapatuan herria ezagutu zuten bisita gidatu batek lagunduta eta gauean, Umore Ona elkartean afaldu zuten. Domeka goizean Bilborako bidea hartu zuten.



**Guatemalaren aldeko kontzertua.** Guatemalan liburutegi bat egiteko dirua biltzeko kontzertua egin zuten zapatuan Arrasateko gaztetxean. Ainhoa Uriarte arrasatearra urtebetez egon da Guatemalan eta egurrezko etxetxo baten liburutegia jarri zuen martxan. Orain, ordea, porlanezko eraikina gura dute altxatu eta eraikuntza lanak egiteko dirua lortzeko, kontzertua antolatu dute. Never Surrender, Porron y Cuenta Nueva, Ume Gaiztuen Festa eta Golpe de Estado taldeak ziren gonbidatuak. Gutxienez 12.000 euro behar dituzte proiekturako.

## jaiotakoak



**Unai Eraña Belategi**
Antzuola > 4,060 kilo. Apirilaren 20an. Gurasoak: Yolanda (Eskoriatza) eta Iñigo (Eskoriatza). Argazkian, Unai jaioberria aitarekin.



**Iraia Arregi Orueta**
Oñati > 3,280 kilo. Apirilaren 21ean. Gurasoak: Nagore (Oñati) eta Iñaki (Oñati). Argazkian, Iraia jaio berria sehaskan lo.



**Unax Altube Ayesta**
Oñati > 3,500 kilo. Apirilaren 21ean. Gurasoak: Amaia (Orozko) eta Iban (Oñati). Argazkian, Unax jaioberria sehaskan lo.



**Malen Aranegi Aguilar**
Arrasate > 3,110 kilo. Apirilaren 23an. Gurasoak: Ana (Arrasate) eta Alberto (Arrasate). Argazkian, Malen, amamarekin.



**Garazi Antxia Morales**
Aretxabaleta > 2,720 kilo. Apirilaren 22an. Gurasoak: Sonia (Aretxabaleta) eta Edorta (Aretxabaleta). Argazkian, Garazi sehaskan.



**Unai Aguilera Iglesias**
Aretxabaleta > 3,200 kilo. Apirilaren 22an. Gurasoak: Marian (Aretxabaleta) eta J.Antonio (Aretxabaleta). Argazkian, Unai amarekin.



**Danel Sainz Perez**
Antzuola > 2,960 kilo. Apirilaren 23an. Gurasoak: Vanessa (Arrasate) eta Raul (Arrasate). Argazkian, Danel, sehaskan lo.



**Aitor Markiegi Baskaran**
Bergara > 3,970 kilo. Apirilaren 22an. Gurasoak: Miren Josune (Bergara) eta Ander (Bergara). Argazkian, Aitor jaioberria sehaskan lo.



**Izaro Gonzalez Flores**
Arrasate > 4,000 kilo. Apirilaren 23an. Gurasoak: Mari Mar (Arrasate) eta Cesar (Arrasate). Argazkian, Izaro, aitarekin.



**Itoitz eta Ekhi Louvelli Urrutia**
Aretxabaleta > 2,850 eta 2,900kilo. Apirilaren 23an. Gurasoak: Eneritz (Aretxabaleta) eta Iñigo (Hondarribia). Argazkian, sehaskan lo.



**Norah Murillo Fallow**
Eskoriatza > 3,520 kilo. Apirilaren 23an. Gurasoak: Sinead (Eskoriatza) eta Agustin (Eskoriatza). Argazkian, Norah aitarekin.



**Aimar Azpitarte Zubizarreta**
Aretxabaleta > 3,290 kilo. Apirilaren 23an. Gurasoak: Nagore (Aretxabaleta) eta Joxemari (Oñati). Argazkian, Aimar amarekin.



**Eneritz Gereñu Arregi**
Oñati > 3,760 kilo. Apirilaren 24an. Gurasoak: Nerea (Oñati) eta Joseba (Oñati). Argazkian, Eneritz, sehaskan lo goxo-goxo.



**Sofia Casado Alainez**
Eskoriatza > 3,520 kilo. Apirilaren 25ean. Gurasoak: Sonia (Eskoriatza) eta Miguel Angel (Eskoriatza). Argazkian, Sofia, gurasoekin.



**Martxel Lasagabaster Arrieta**
Aretxabaleta > 3,620 kilo. Apirilaren 20an. Gurasoak: Mireia (Aretxabaleta) eta Xabi (Aretxabaleta). Argazkian, Martxel jaioberria goxo-goxo lo.



**Maider Etxebarria Ruiz de Egino**
Agurain > 3,380 kilo. Apirilaren 19an. Gurasoak: Aitor (Bergara) eta Ana (Agurain). Argazkian, Maider, ahizpa Junerekin.

BABESLEA


Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

ASTELEHENEKO **Goienkaria**
**EGOITZA NAGUSIA**
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Harpidetza:** 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com



**Iban Del Campo** > Irakaslea eta film laburren egilea

# "Izkina guztietan daude kontatzeko istorioak"



**ZINEMA** Film laburrak eta dokumentalak idaztea da bere zaletasuna. GOIENKARIA

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

**Iban Del Campo arrasatearrak Bilbora jo zuen ikastera eta horren ostean Bartzelonan hainbat urte egin zituen. Kazetari *free-lance* lanak egin zituen eta tarteka harrera oso ona izan duten dokumental eta film laburrak egin ditu.**

**Zure burua arrasateartzat daukazu oraindik?**

Ez guztiz. Jaiotzez bai, baina bizitzak beste leku askotara eraman nau. Maritxu Kajoiren sinismena oraindik badaukat. Nik uste dut momentuan zaren lekukoa zarela, eta bizi izandako guztia batu egin behar zaiola: puzzle antzeko bat.

**Zeren bila jo zenuen Bartzelonara orain dela hamar bat urte?**

Agian nire buruaren bila, nahiz eta ez nintzen horren jakitun. Beste bizimodu eta beste jende mota baten bila jo nuen. Bartzelona aukeratu nuen kultura aldetik oso aberatsa delako, eta gauza berriak ezagutu gura nituen. Horrez gain, neska baten atzetik ere jo nuen (barreak).

**Diru oso gutxirekin film laburrak eta dokumentalak egiteko gai zarela erakutsi duzu. Zer da ezinbestekoa?**

Gogoa izatea eta barruan daukazun ideia baten erabat sinistea. Nire kasuan presio barik lan egin dut, ekoizpen independienteak izan direlako, eta horrek bere alde onak ere baditu.

**Zure dokumentaletan kaleko kontuak jasotzen dituzu. Kalean zabiltzala istorioak ikusi eta irudikatzen dituzu? Non inspiratzen zara?**

Askotan ikusten ditut jasotzeko moduko istorioak; edozein izkinatan daude kontatzeko moduko gauzak. *Gasman* egin aurretik, Bartzelonan, etxera, butano-banatzaile bat etorri zen eta jakin nuen eskupekoetaz bizi zela. *Un tal Eusebi*, berriz, kalean ikusten nuen agure bitxi bat da. Biak kontatzeko modukoak iruditu zitzaizkidan.

**Azken aldian Huhezin irakasle lanean zabiltza. Erronka handia da zuretzat?**

Bai, gainera bat-batean irten zitzaidan lana. Gogoa nuen dokumentalgintzaren ikastaro batzuk egiteko, eta hortik sartu nintzen Huhezin. Erronka itzela da 30 pertsonen aurrean aritzea eta motibagarriak dira lan horiek.

**Bartzelonan *free-lance* moduan ibili zinen hara eta hona. Orain leku baten finko. Ohitu zara?**

Behin Bartzelonan esan zidaten ordenagailu ondoan lan egiteko ez nuela balio. Arrazoia dute kalerako aproposa naizelako. Baina Huhezin moldatu naiz.

### TEST-A

**Herria:** Arrasate. **Adina:** 37 urte. **Ikasketak:** Kazetaritza eta Sormeneko Dokumentalgintza. **Zaletasunak:** Lagunak, oporrak eta inprobisatzea. **Zer amets bete duzu?** Herritik irten eta hiriburu handi baten bizitzea, eta film laburrak eta dokumentalak egin ahal izatea. **Eta zer amets daukazu betetzeko?** Mexikora joatea eta sormenerako energia izaten jarraitzea. **Musika talde bat?** Nick Cave eta Amy Winehouse-ren nahasketa.

## ai, ene!



### Armiarma telegidatua

Abenduaren 28a urrun samar geratzen da oraindik, baina dagoeneko badago aukera betiko txantxei ukitu modernoa emateko. Ez dakiguna da norbaitek izututa zapalduz gero bermerik duen edo ez. Sarerik jartzen ez duen bitartean…

http://www.megagadgets.es

## biharamuna

**Juan Kruz Mendizabal**

### Bidea

Orain hilabete batzuk Santa Marinara bisitan etorritako bi emakumek Jose María Escrivá-ren *Bidea* liburu ospetsua eman zidaten. Apaltasun handiz adieraziko dizut, irakurle, zein den nire bidea. Atzo, igandea, bi meza ospatu nituen. Biak hunkigarriak, sakonak eta alaiak. Bata, gure elkarteko gaixoekin eta, bestea, Lehen Jaunartzea egin duten 34 haur, guraso eta adiskideekin. Amak prestaturiko etxeko bazkari bapoa jan ondoren, nire iloba Izarok magalean lo hartu dit. Biok egin dugu siesta, elkarrekin ametsetan, bakoitza bere irudimen askean. Gaurko Lehen Jaunartzeko hitzaldian eskaini dudan bidea eman go dizut, nire ardatza: geure haurrei bide bat erakusteko oinarri-oinarrian askatasuna behar da. Baina, bestetik, bide bat erakusteko asmoa, garrantzia, elkarrizketaren premia. Entzuten ikasi eta hitz egiteko beldurrik ez izan. Egia esan eta gezurrak salatu. Bigarren, mahaia prestatzeko beti egon, serbitzeko prest, besteei mahaia jartzeko irriketan. Bi ardatz hauetan aurkitzen da gure oraingo eta betiko Eliza honen zeregina. Hauxe da gaurtik lantzeko bidea, aniztasunarena, mugarik gabe maitatzen duenaren, gizaki egiten gaituena. Ez nuke nahi nire iloba lo gozo horretatik esnatzea nahi, baina hauxe da erakutsiko diodan bidea. Segi lotan…



## eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +13 | +07 |

Astelehen freskoa eta euritsua. Tenperatura nabarmen jaitsiko da. Arratsaldean ostarteak zabalduko dira.

www.euskalmet.net

